# 1.999

# TIBURZIO DONEAREN FESTAK



# LEITZA 99

ABUZTUAK 10-15

21 ZBK

**LEITZAKO UDALA**



Herritar eta bisitari guztiei
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

**AURRERA K.E.-KO BAZKIDEEK**

Herritar eta bisitari guztiei
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Urterko legez, aurtengoan ere, herriko pestak ospatzeko sasoian gaude leitzarrok.

Urte guztiak ia berdintsuak badira ere, aurrera dien honek badu esanahi berezirik: gizaldi hontako azken pestak izanen ditugu, Euskal Herrian eta Leitzan ere itxaropenerako giroa bizi dugu eta azkenik, legealdi berriari hasera emanen diogu.

Hurrengo lau urteetan udalaren izenean lanean arituko garen hamaika gizon emakumeok erronka handia dugu Leitzako egunerokotasunean; Herria eta leitzarren hobekuntzaren alde lana ahal den hobekien egitea.

Badakigu hartuko ditugun erabakiekin ez dugula herritar guztien nahia asetuko, baina gauzak beti horrela izan direnez, gure asmoak eta indarrak azken legealdiko bidetik zuzenduko ditugu. Hasitako lanak beti behar du jarraipena.

Gauza bakoitzak bere garaia du eta oraingoan pesten garaia dugunez, nor garen eta zer garen ahaztu gabe jai animoso eta alaitsuak opa dizkizuegu eta bide batez, aspaldian etxean behar genituen presoek pestak ospatzeko paradarik izanen ez dutenez, pestetan ere gogoan izanen ditugulakoan gaude.

Kanpotar asko etorriko da, alde egin ere, eta aurrerantzean guk jarraitu beharko dugu Leitzan. Beraz, pestetan euskaraz bizi eta ongi pasa.

GORA TIBURTZIO DONEAREN PESTAK

GORA LEITZA

## ABUZTUAK 7, LARUNBATA

ERREPARTOAREN EGUNA




**Arratsaldeko 4etan:** Herri guztian barrena pestetako egitarauen banaketa eginen da. Leitzako gazteak, trikitilari, txistularin, akordion eta Ezpelur gaitero-en laguntzez, etxez etxe ibiliko dira.

Gogoan izan, dirue, kaxa giltzatue duenei bakarrik eman behar zaiela.

**Arratsaldeko 5etan:** Leitzako Aizan kirol elkarteko txirrindulari eskolako umeak aritu dira.

Ondorean eta afal ondorean Ezpelur gaiteroak ibiliko dira kalez kale.

## ABUZTUAK 8, IGANDEA

UMEEN EGUNA

("DENOK BAT" IKASLEEN GURASO ELKARTEAK ANTOLATUE)



**Goizeko 8etan:** Diana txistulariekin.

**Goizeko 10'30etan:** Meza nagusia dantzari ttikien korporazioarekin.

**Goizeko 11'30etan:** Aurrera K.E.ko pilota eskolako neska/mutikoen partiduak plazan.

**Ondoren:** Umeentzako jokoak eta koltxonetak plazan.

**Arratsaldeko 4etan:** Umeentzat koltxonetak.

**Arratsaldeko 5'30etan:** Umeen ingurutxoa.

**Arratsaldeko 6'30etan:** BIHAR txontxongilo taldea "BALEA SALBA DEZAGUN" ikuskuzuna eskeiniko dute.



**Arratsaldeko 8etan:** AMAIA ETA KRISTINA taldearekin dantzaldia.

**Gaueko 12etan:** dantzaldia talde berarekin.

## ABUZTUAK 10, ASTEARTEA

PESTA BEZPERA



**Eguerdiko 12etan:** Herriko koadrilen arteko herri-kirolak (soskor apustue, zaku-saltoa,...)

**Arratsaldeko 2etan:** Jubilatuen bazkaria.

**Arratsaldeko 6etan:** Pestei hasiera emanez, ezkilek jotzea eta etxafuego botatzea.

**Ondoren:** Plazaola aldizkariaren azalaren lehiaketan irabazle izan den Berta Mihurari Herriko alkateak saria emanen dio Udaletxeko sala nagusian.



"INCANSABLES" txaranga eta Leitzako Erraldoi konpartsa herriko txistulariekin herriari buelta emanen diote pestak hasi direla herritarrak ohartarazteko.

**Gaueko 12etatik aurrera:** TRAKETS taldea plazan.

## ABUZTUAK 11, ASTEAZKENA

TIBURTZIO DONEAREN EGUNA



**Goizeko 7'30etan:** Diana. Txistularik beren buelta eginen dute, eta Incansables txarangak berriz, Amazabal auzora joko du.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta Erriberako behiak plazan.

**Goizeko 10'30etan:** Meza kantatue, dantzariak eta herriko korporazioak lagundurik.

**Eguerdiko 12etan:** Aurrera K.E.ko ezpatadantzariak ezpatadantza dantzatuko dute herriko plazan. Bertan Patxi Ripa eta Martin Larraz ezpatadantzariak omenduko ditugu.



**Eguerdiko 12'30etan:** Afizionatuen arteko pilota partidua.

**Arratsaldeko 6etan:** Erriberako behiek plazan.

**Arratsaldeko 7'30etan:** Umeentzako kale animazioa GOLOKA taldearekin.

**Ordu berean:** Profesionalen arteko pilota partiduak Amazabal pilotalekuan Aspek antolatuak.

**Gaueko 12etatik aurrera:** EQUUS eta DIEGO QUEVEDO Y SU MARIACHI taldeen emanaldie.

## ABUZTUAK 12, OSTEGUNA

PESTA BIGARRENA



**Goizeko 7'30etan:** Diana txistulariekin.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta Erriberako behiek plazan.

**Goizeko 12etan:** herriko arrijasotzaileen emanaldia

**Arratsaldeko 6etan:** Erriberako behiek plazan.

**Arratsaldeko 7'30etan:** Aurrera K.E.ko dantzarien saio berezia plazan.

**Ordu berean:** Asegarcek antolatutako pilota partiduak Amazabal pilotalekuan.

**Gaueko 12etatik aurrera:** GAUBELA taldearekin dantzaldie.



## ABUZTUAK 13, OSTIRALA

PESTA HIRUGARRENA

**Goizeko 7'30etan:** Diana txistulariekin.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta Erriberako behiek plazan.

**Goizeko 10etan:** Txirrindulari jubenilen karrera AIZAN K.E.k antolatua, herrian hasi eta bukatu.





**Goizeko 11'30etan:** Kalderete txapelketa Udaletxeko karrapean.

**Arratsaldeko 6etan:** Erriberako behiek plazan.

**Arratsaldeko 7'30etan:** Bertsolarien saioa.

**Gaueko 12etatik aurrera:** ETZAKIT taldearekin dantzaldia.

## ABUZTUAK 14, LARUNBATA

GAZTEEN EGUNA



**Goizeko 7'30etan:** Diana txistulariekin.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta Erriberako behiek plazan.

**Eguerdiko 12etan:** Afizionatuen arteko pilota partiduak plazan.

**Arratsaldeko 6etan:** Erriberako behiek plazan.



**Arratsaldeko 7'30etan:** Neska aizkolariak plazan.

**Gaueko 12etan:** Kontzertua plazan Irauli Gazte Asanbladak antolatue.

## ABUZTUAK 15, IGANDEA

EZKONDU ETA BIKOTEEN EGUNA

**Goizeko 7'30etan:** Diana. Txistularik beren buelta eginen dute, eta Incansables txarangak berriz, Patxi Arrazola auzora joko du.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta Erriberako behiek plazan.

**Goizeko 12etan:** Herri kirolak.

**Eguerdiko 2'30etan:** Aurrerako bazkideen bazkarie Labetxen.

**Arratsaldeko 6etan:** Ezkondu eta bikoteen entzierroa eta Erriberako behiek plazan.





**Arratsaldeko 7'30etan:** Ezkondu eta bikoteen ingurutxoa.

**Gaueko 12etatik aurrera:** JATOR taldearekin dantzaldia.

**Ondoren "POBRE DE MI":** Labetxeko ataritik hasita toki berean bukatuz.

**SABADO, 7 DE AGOSTO**
**REPARTO DE PROGRAMAS**

**4 de la tarde:** Los jóvenes del pueblo realizarán el reparto de los programas de fiestas acompañados de trikitixas, acordeones y txistus.
El dinero se deberá entregar sólo y exclusivamente a los jóvenes que lleven las cajas precintadas del C. D. AURRERA.
La charanga **ZIZKUITZ** actuará por las calles del pueblo a partir de la medianoche.

**DOMINGO, 8 DE AGOSTO**
**DIA DEL NIÑO**

**8 de la mañana:** Diana a cargo de los txistularis.
**10'30 de la mañana:** Misa Mayor presidida por la corporación de los danzaris txikis.
**11'30 de la mañana:** Partido de pelota a cargo de la escuela de pelota del C. D. AURRERA.
**12'30 de la mañana:** juegos infantiles y colchonetas en la plaza.
**4 de la tarde:** colchonetas para los críos.
**5'30 de la tarde:** Ingurucho infantil.
**6'30 de la tarde:** Actuación del grupo de titiriteros BIHAR.
**8 de la tarde:** Bailables a cargo de **AMAIA ETA KRISTINA.**
**12 de la noche:** Bailables con el mismo grupo.

**MARTES, 10 DE AGOSTO**
**VISPERA DE FIESTAS**

**12 del mediodía:** Herri kirolak a cargo de los jóvenes del pueblo.
**6 de la tarde:** Se dará comienzo a las fiestas con el tradicional repique de campanas y posterior lanzamiento del cohete. Acto seguido, el alcalde hará entrega del premio a la vencedora del concurso de portadas de la revista. PLAZAOLA: BERTA MIHURA.
A continuación, la charanga Incansables y la comparsa de gigantes de Leitza, acompañada por txistularis, darán la vuelta al pueblo.
**12 de la noche:** Actuación del grupo TRAKETS.

**MIERCOLES, 11 DE AGOSTO**
**DIA DE SAN TIBURCIO**

**7'30 de la mañana:** Diana.
Mientras la charanga "Incansables" despertará a los vecinos de Amazabal, los Txistularis harán su habitual vuelta.
**9 de la mañana:** Encierro y vacas bravas en la plaza.
**10'30 de la mañana:** Misa cantada. Asistirá el pleno de la corporación municipal con la ayuda de los ezpatadantzaris del C.D. AURRERA.
**12 del mediodía:** Ezpatadantza a cargo de los dantzaris del C.D. AURRERA.
**12'30 del mediodía:** Partido de pelota de aficionados.
**6 de la tarde:** Vacas emboladas en la plaza.
**7'30 de la tarde:** Teatro de calle infantil a cargo del grupo GOLOKA.
**A la misma hora:** Partidos de pelota profesionales en el frontón Amazabal a cargo de Aspe.
**12 de la noche:** Bailables con los grupos EQUUS y DIEGO QUEVEDO Y SU MARIACHI.

**JUEVES, 12 DE AGOSTO**
**SEGUNDO DIA DE FIESTAS**

**7'30 de la mañana:** Diana a cargo de los txistularis del pueblo.
**9 de la mañana:** Encierro y embolados en la plaza.
**12 del mediodía:** Exhibición de los levantadores del pueblo.
**1'30 del mediodía:** Concierto de Incansables en Patxi Arrazola.
**6 de la tarde:** Vacas bravas en la plaza.
**7'30 de la tarde:** Actuación del grupo de danzas del C.D. AURRERA.
**12 de la noche:** Bailables en la plaza con el grupo GAUBELA.

**VIERNES, 13 DE AGOSTO**
**TERCER DIA DE FIESTAS**

**7'30 de la mañana:** Diana a cargo de los txistularis del pueblo.
9 de la mañana: Encierro y vacas bravas en la plaza.
10 de la mañana: Carrera ciclista de juveniles organizada por AIZAN K.E.
**11'30 del mediodía:** Concurso de calderetes en el caparre.
**1'30 del mediodía:** Concierto de Incansables en Manuel Lasarte.
**6 de la tarde:** Vacas emboladas en la plaza.
**7'30 de la tarde:** Bertsolaris.
**12 de la noche:** Bailables en la plaza el grupo ETZAKIT.

**SABADO, 14 DE AGOSTO**
**DIA DE LA JUVENTUD**

**7'30 de la mañana:** Diana con los txistularis de Leitza.
**9 de la mañana:** Encierro y reses bravas en la plaza.
**12 del mediodía:** Partidos de pelota aficionados en la plaza.
**1'30 del mediodía:** Concierto de Incansables en Amazabal.
**6 de la tarde:** Vacas riberas en la plaza.
**7'30 de la tarde:** Aizkolaris femeninas en la plaza.
**12 de la noche:** Concierto de rock en la plaza organizado por IRAULI Gazte Asanblada.

**DOMINGO, 15 DE AGOSTO**
**DIA DE LOS CASADOS Y LAS PAREJAS**

**7'30 de la mañana:** Ultima diana. Los txistularis harán el mismo recorrido de siempre, y la charanga "Incansables" llevará su música al barrio Patxi Arrazola.
**9 de la mañana:** Encierro y embolados en la plaza.
**12 del mediodía:** Deporte rural.
**2'30 de la tarde:** Comida de los socios del C.D. AURRERA en los locales de la sociedad.
**6 de la tarde:** Encierro para los casados y las parejas, y reses bravas en la plaza.
**7'30 de la tarde:** Ingurutxo de casados y parejas.
**12 de la noche:** Bailables con el grupo JATOR.
**A continuación:** "POBRE DE MI" con salida y final en la plazoleta de los locales del C.D. AURRERA.

## OHARRAK

Incansables txarangak atsaldero eta gauero herriko baztarrak alaituko ditu.

BURU-HAUNDIAK atsaldero aterako dira txarangarekin batera.

UDALAK ez du XEXENETAN gerta daitezkeen istripuen erantzunkizunik hartzen.

EGITARAUA borondatearen truke banatuko da. UDALETXEAN, LIBURUDENDETAN eta TABERNETAN ere salgai egonen da.

XEXENETAN dabiltzenei eskapa bidea errezagoa egiteko barreren gainean inor ez esertzea eskertuko genuke.

AURRERAKO BAZKIDEEN BAZKARIRA joan nahi dunak, txartelak Abuztuaren 13a baino lehen salgai izanen ditu GAZTA-AGA eta MUSUNZAR tabernetan.

## PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEN OHARRAK

PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEK EZ DUTE ZERTAN ADOS EGON BEHAR BERTAN AGERTZEN DIREN IRITZI DESBERDINETAKO IDAZKIEKIN.

LANAK BIDALTZEN DITUZTENEK BEREN IZENAK JAKINARAZI BEHAR DIE ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEI, SOR DAITEZKEEN ARAZO LEGALAZ IDAZKIEN EGILEEN ERANTZUNKIZUNA IZANEN DIRELARIK.

GURE ESKERRIK ZINTZOENAK, ALDIZKARI HAU OSATZEKO, BERE LANAREKIN LAGUNDU DUTEN IDAZLE GUZTIEI. BAITA ERE, AZALAREN LEHIAKETAN PARTE HARTU DUTENEI ETA BEREN ARGAZKIAK MUSUTRUK UTZI DIZKIGUTENEI ALDIZKARIA OSATZEKO.

Azalaren lehiaketan parte hartu dutenak:

Berta Mihura
Axe Astiz
Joxe Mari Zabaleta
Aingeru Mindegia

Argazkigileak:

Javi Aranburu
Karmele Agirre

**Eguerdiko 1'30etan:** INCANSABLES txarangaren emanaldia Patxi Arrazola auzoan.
**Eguerdiko 1'30etan:** INCANSABLES txarangaren emanaldia Manuel Lasarte auzoan.
**Eguerdiko 1'30etan:** INCANSABLES txarangaren emanaldia Amazabal auzoan. AIZAN K.E.k antolatuabertan.

## AVISOS

La charanga INCANSABLES animará las calles del centro del pueblo todos los días por la tarde y por la noche.

Los cabezudos saldrán todos los dìas por la tarde junto con la charanga.

El Ayuntamiento no se hará cargo de los accidentes que ocurran en las vaquillas.

El programa de fiestas se repartirá a cambio de la voluntad. Además, se podra obtener en el Ayuntamiento, las librerías y los bares del pueblo.

Sería de agredecer que el público asistente a los espectáculos taurinos, se abstubiese de sentarse encima de las barreras, para así facilitar la huída de los que se vieren en apuros ante las embestidas de los astados.

Todo aquel socio del C.D. AURRERA que desee asistir a la comida de socios, deberá comprar la entrada antes del día 13 de Agosto en los bares GAZTA-AGA y MUSUNZAR.

# ZERORREK DUZU !!
# EUSKARAren



Tituloak dioen bezala, ìzerorrek duzu euskararen giltzaî. Hala da, alferrik hariko gara euskararen egoerari buruz hitz egiten, guk deus egiten ez dugun bitartean. Modu asko dago zerbait egiteko, baina garbi utzi nahi genuke guk gerok egin beharreko kontua dela.

Euskararen egoera moldatzeko, modu ezberdinez hitz eginen dizuegu ondoko lerro hauetan. Gure ustez lehenik, helduen eta euskaldunen arteko komunikazio tresna, arlo guzietan, euskara izatea lortu beharko genuke; hau ala balitz, gure ondorekoek modu naturalez euskara ikasiko lukete. Beraz, trasmisioa ziurtatua egonen litzateke. Aurrera segi dezagun bada.

Baina erne! Euskaldunen artean euskaraz hitz egitea inportantea baldin bada, gaur egun euskaldun alfabetatuak behar ditu euskarak, idazten eta irakurtzen dakiten euskaldunak alegia. Gure eskuetan dago euskararen osasuna eta iraupena.

Aizu! Eta bai al duzu ondoan euskara ez dakien baten bat? Anima ezazu guregana etortzen, gustora lagunduko genuke goian aipatutako guzia lortzen.

Leitzako Euskaltegia

ika

# PI, PI, PIII...

Gaur goizean, egunero bezala, iratzargailuak esnarazi nau. Pi, pi, piii..

Txirrin madarikatua aditu dut baina zerraldo nengoen. Goxo-goxo egoki eta ez iratzarri nahi. Hala ere, trasteak bereari eutsi eta jo eta kea, atertu gabe. Horrela, halako batean, burmuinak ernatu eta, gogo txarrez izan arren, lanari ekin diote, nire aginduak betetzeari, alegia. *Ya, itzali despertadore nazkarri ori! Tia,tia, beso matteak, mugi, ots, ots!* Baina, bai zera! To! Egiahalak eginagatik, deus ez. Ezta keinurik ere. Bien bitartean, trastetzar horren hots nazkagarria, nire erraietan barrena gero eta ozenago - *Bai setosoa!!! Astune dok gero, astune denez!*

Pi, pi, piii...

Horratx! Itzaltzeko esan eta esan, eta deus ez. Ez erantzuten besoak! Nola, baina? Ba, bai. *Au dok au. Arraionea! Ze demono gertatzen zat? Ez ote dot itzali bear?* Urduritzen hasi naiz. Geroago eta urduriago. Izerdi hotza kopetan. Gorputz osoa ere izerdi putzutan, blai-blai.Itaunak nire baitan. *Zerengatik etzazkitt besoak moitzen? Zingurrittuk ote dauzket? Sortuk? Ene, Jesus! Ametsetan ote nau? Orixe izaan dok, dudik ez tena. Oaiñ berriro re olaxe eondu nidduen amar minutuz benik, ille baneo bezelaxe oatzen gañen. Beño, alare, i, onozkeo obei re bazeamazkit. Ez dit deuse entenditzen! Bo, ez al duu itzali bear traste madariketu ori?! Alajangoikoa, emen ez tok atsegin, bulle-mulle ta gaztako min!*

Izerdia, gero eta itsaskorragoa: busti-busti eginda. Txipa eginik. Maindireak gainera, nire larrua bailiran, pega-pega eginda, itsatsirik. Haietatik askatu nahi eta ezin. Preso naukate. Aitona zenaren esana datorkit: "nahi eta eziñe, horrek bai miñe". *Ya, i , mugi ari beingoz! Aittooo? Aski dok! Ez al dok aitzen?* Dagoeneko nire buruari ozenki ari natzaiola konturatu naiz. Baina, hala eta guztiz ere, nire buruak erantzunik ez. *Zer demontre! Erotu iñ al zat? Zoratu?* Ezin eutsi amorrazioari eta, eroturik banengo bezala, sutan, gero eta ozenkiago ari natzaio.-*Zer arraio? Beño, beño. Auxe bai earra! Moitzeko esan ta esan da, gorputz madariketu au, berek geiokin, ezta keñu zipitzik e! Eonen, majo! Ongi temosoa izakio. Au marka! Emen ez tok gauz onik!*

Lasai nadin, pentsa dezadan.-Itzali nai dit esnagailuaaa! Beso eoskorrak, geldi zazue traste ori! -Garraisiak ihes egin dit ezinaren ezinez. Buruko mina jartzen ari baitzait soinu zatar horrekin eta, ez jakinki zer egin.- *Oi zalaparta! Ara, txikittu iñen nikek, txiki-txiki in de kitto! Beño nola, orden? Ixo, ixo! Geldittu in dok. Juassh! Bearrik, gañekoan...Aaa!!! Yakiñe, alu oi bee gise itzaltzen baita, bost minutu iraota. Aztue eokio, ni. Au pakea. Aizak, i. Oan bai ongi, aitz ongi re!*

*Zerrr? Ez, ez, eeez! Ba, bai, egie dok. Egi utse gaña. Ziñez itteit e! Ziñez eta benaz.*

*Ez, ez eta ez!!! Ta baita beste ameika aldiz e! Ezetz!*

*Ezin litekek; nola arraio izaan da egie? Tia, tia...ametsetan egone nak oranddik. Pentsatzea re! Alajainkoa, nola ba? Au txoroa! Buaj! Ez, ezin zittekek!*

*Bai jaune! Egie dok ba. Mingarrie izanagatik e, egi utse ta ukaezine dok. Ta gaña, obe uke ametsetan bizitzeri uko iñ lenbaileben, ta errealidaderi aurre iñ. Orrek erremedioik ez baitauke. Bueltaik ez! Ola, ere bururi kalte beño ez tiok eittten. Onartzak bein betikoz, ta kitto! Ez al aiz oartzen? Eoskorra aiz i, orrantik!*

Bai. Egia da, bai. Oraintxe oroitu zait gertakari hura. Ez nahi baina, jabetu naiz: ezin mugitu ni, inola ere; elbarria bainaiz. Istripua, zoritxarreko ezbehar hura. Lo nengoelarik, ahaztu, niri. *Jo, ez! Au mixerie! Zengatik? Zer dela ta ni oatze onei lotue? Au naigabea! Ze estuasune! Gogotik izorratue neok, aittue raso! Akabo! Nerek iñ dik. Xau.*

Bizitza horrelaxekoa da. Duela sei hilabete gertatu zen. Beti bezala presaka nintzen; berandu samar jaikia izanki. Izan ere, gauean berandu oheratu nintzen. Beharko! Lanetik itzuli nintzenerako bederatziak baziren eta. Afaria prestatu beharra, biharamuneko bazkaria ere bai, jakina! eta gainera lan hura ordenagailuan pasatu beharra hurrengo egunerako.Gauza gehiegi, kezka gehiegi zalantzarik ez dagoena. Hala, beti ere, noizbait sartu nintzen ohera baina, ez alferrik! Loak ez hartzen. Kezken zurrunbiloak harrapatu eta ez ninduen askatzen: etxea ordaindu gabe, autoa oso zaharra hondatuxea, erosketak egiteko betarik ez, lagunari hots egitea ahaztu, hurrengo goizean ardura haundiko txostena lanean...bestetan beste. Jakina da, atarramentu onik ez. Bada, horrelaxe igaro nituen auskalo zenbat ordu, jira eta bira, bueltaka: aurrena tripez gora, gero ahozpez, zeharka... Begira, esnagailuak jo zuenean orduantxe oheratu nintzela iruditzen niri. Izanez ere, leher eginik nengoen, loak amorratzen. Hala, piska bat gehiago gelditu eta, beranduegi jaiki, askoz ere beranduegi ere. Azkenik, gosaldu gabe abiatu behar. Kotxean sartu, zigarroa biztu eta ahalik eta azkarren lanerantz abiatu nintzen. Ordu erdiko bidea izaten banuen ere, egun hartan, lanera iritsiko banintzen, beti ere, hogei minututan egin behar. Hala, behinik behin, ziztu bizian nindoala, neronek ez jakin nola, kontrola galdu eta larri demonio. Iskineko arrastoa zapaldu eta gero eta eskuinerago. Zuzen-zuzenean bazterreko ezpondara sartzera nindoan eta..larri baino larriago. Orduan, zirt edo zart, iaaaa, beste aldera bolante-kolpea. Eta zer da eta, ez zait ba, kotxea dantzan hasi eta beste alderdira joan! Halako batean, bat-batean, kamioi bat helduki beste aldetik: zanpa! Krask!

Horra hor gertatua.

Orain hementxe natza, ez zerurako, ez lurrerako. Hau nahigabea! Bai egoeraren penagarria! Urrikal dut neure burua.- "I, bizik ao, biñipin! Pozik bear uke" esan lezake inork, aurki, baina, zertarako, ordea? Begietatik ihesi doazkidan malkoak ere, ezin txukatu ditut eta!

Oraindaino ez dut betarik izandu deustarako, nire amets eta fantasiei ekiteko, nola hartu denbora? Beti presaka, lan eta lan. Gaur geroz, aurki, beranduegi izanen da. Kakazaharra.

Egun, berriz, munduko denbora guztia, nirea da. Zer egin dezaket, ordea? *Ezereza, ez beste ezereza! Esaten nien nik ure martxa txarra zela, aitz. Txoroa! Ta uaiñ zer? Alperrik bizi aiz! Baioake, motell, inpernuko zulora re. Berdin, ze pintatzek ik mundu ontan!*

Pi, pi, piii...

Arnas estuka, kolpe batez goratu naiz, rau! *Beño, ze kristo? Ze soñu da ori?* Esnagailua gelditu eta nire buruarekin jolasean:- *Ze pasatu de? Amets gaiztoa izanduk lasai! Izerdi putzuten neok! Au itoalea! Ori dok. Eskerrak! Ene! Banegoan ba, ni! Zeiñen ametsan gaixtoa! Ongi neok eta! Mugi nattekek! Ufaaa!!!*

Alabaina, egia ere izan zitekeen. Gaizki dabilenak, gaizki bukatzen baitu! Jakinaren gainean gaudeke!?

Geroztik, erne, argi. Ametsak amets, egia ere bihur dakizkiguke eta. Ez ahal da hori gertatuko!

Ametsak egia bihurtzea nahi ez duen ameslaria:

**AMETS**

# INKESTA...

**GOARDIA ZIBILA LEITZAN:**

**EGOERA ETA HERRITARREN IRITZIA**

Dakizuen bezala, aurtengo udaberrian, Karrape Irratiaren eskariz hainbat neska-mutil inkesta bat burutzen ibili dira Leitzan barrena, Goardia Zibila dela eta jendearen iritziak jaso nahian. Bada, inkesta horren ondorio nagusiak txosten batean bildu dira jada eta txostenaren laburpena txoko honetan ere ezagutzera eman nahi izan dugu.

Esan bezala, Leitzako Karrape Irratiaren eskariz egindako inkesta honen helburua Goardia Zibila dela eta herrian nolako egoera bizi den eta jendeak horri guztiari buruz zer pentsatzen duen ezagutzea izan da. Egoeraren azterketan sakontzeko, errepide kontrolen maiztasuna zein bestelako gertakariena jaso da batez ere. Egoeraren aurreko iritzien pisua jasotzeko berriz, herritarrei beren sentimendu eta irudiei buruz galdetu zaie zuzenean.

Bestalde, ikerlan honek arazo honen inguruko hurbilpen soziologikoa suposatzen du eta zentzu horretan ulertu behar da, hau da, errealitatera hurbiltzeko pauso bat bezala. Egin den ikerlan hau erabat adierazgarria da, alegia, bertan jasotzen diren datuak aztertzerakoan Leitzako herritar guztiek pairatzen duten egoera eta iritziez hitzegin dezakegu, egin diren inkesta kopuruak eta akats tarteak hala ahalbidetzen baitute.

Guk dakigula herrian egin den horrelako lehen inkesta izaki, bertan biltzen diren datu eta ondorioak Leitzako herritarrentzat baliogarriak izanen direlakoan gaude: errealitatea hobeki ezagutu eta arazoei irtenbidea aurkitzeko lagungarri alegia.

Besterik gabe laburbil ditzagun telegrafikoki txostenean aipatzen diren ondoriorik nagusienak:

1.- Goardia Zibileko kideak ez daude Leitzan integratuta (herritarren %2ak besterik ez du goardia zibila den lagunik).

2.- Datuek adierazten dutenez, badirudi Goardia Zibilak Leitzan duen zeregin nagusia herritarrak kontrolatzea dela, eta ez herritar hauei bestelako zerbitzuren bat eskaintzea. Izan ere, argi geratu den bezala, askoz gehiago dira goardia zibilen aldetik kontrol zuzena pairatu dutenak (%78), goardia zibilen bidez bestelako edozein izapide egin dutenak baino (%45). Kontrol hori, gainera, sarritan jasan behar izan dute leitzar dexentek, eta egoera zinetan gogor eta desatseginak ere pairatu behar izan dituzte leitzar ugarik.

3.- Goardia zibilek egiten duten herritarren kontrolak beldurra, haserrea eta inpotentzia eragiten du leitzarrengan. Apenas dago leitzarren artean, Goardia Zibilaren kontrol batean "babesa" edo "segurtasuna" sentitzen duen herritarrik. Bestela esanda, herritar ia guztiek gehiago ikusten dute Goardia Zibila beraien segurtasuna eta ongizatea mehatxatzen duen arrisku gisa, beren segurtasuna eta ongizatea bermatzeko dagoen zerbitzu gisa baino.

4.- Arras balorazio negatiboa egiten dute leitzarrek Goardia Zibilarekiko: inongo zalantzarik gabe, hauxe da leitzarrek okerren baloratzen (edota gehien gorrotatzen) duten erakundea. Ia guztiek oso balorazio negatiboa egiten dute eta balorazio positiboa egiten dutenak %5a besterik ez dute osatzen. Ildo beretik, esan dezagun, %82ak Goardia Zibila soberan dagoela esaten duela eta, are gehiago, %74 batek herrian "arazo" bat bihurtu direla esaten duela.




5.- Leitzar gehien-gehienek arazo honen aurrean Udalak zerbait egin beharko lukeela esaten du, eta erdiak baino gehiagok goardia zibilak herritik bota egin beharko liratekeela adierazten du argi eta garbi. Egun Goardia Zibilak okupatzen duen etxeari buruz, azkenik, etxe horrek Goardia Zibilaren egoitza izaten jarrai dezala leitzarren %5ak besterik ez du nahi. Gainontzeko guztiak, egun duen erabilera ez den beste bat emanen lioke herriarena den etxe horri.

6.- Goardia Zibilaren aurkako jarrera orokorra da herritarren esparru eta sail guztien artean, baina bereziki nagusia da (ia erabatekoa esan dezakegu) etorkizuneko Leitza osatuko duten belaunaldi berrien artean, hots, herriko gazteen artean.

Hau litzateke inkestak emandako informazio garrantzitsuenaren azalpena. Uste dugu bai Goardia Zibilari zein erakunde horren agintaritza bere gain duten arduradunei batetik, eta batez ere Leitzako udalari, herriko erakunde eta talde desberdinei eta leitzar herritar bakoitzari ere, bestetik, zer pentsatua eman beharko liekela hemen bildu diren datu multzo eta azterketa honek. Bistan baita, leitzako herritarrak ez daudela batere gustora Goardia Zibilaren ondorioz herrian bizi den egoerarekin.

Guztion esku egonen da, herritarren gogoekin bat ez dagoen egoera honetatik abiatuz, herritarren behar eta desioekin bat egonen den beste egoera batetara iristea. Hala bedi.Oraindik txostena eskuratu ez baduzue eskatu Karrape Irratian. Besterik gabe, pesta onak pasa.

# GURE ZAHARRAK...

### GURE AURREKO ZAHARRAK HALA ESATEN ZUEN...

Zaharrak beti dire aurrekoak, ez atzekoak. Gure gurasoen gurasoena, gure gurasoen attun-amonena edo haien aurrekoen historiren bat gizaldiz gizaldi datorrena kontatzen denen hala esaten da: “gure aurreko zaharrak hala esaten zuen”.

Lehenago etxeetan yende asko izaten zen. Zortzi edo hamar lagun mayera biltzen ziren sukaldeak nonnahi ziren. Eta gehiagokoak ere bai. Gurasoak, attun-amonak, senide ugari eta mutilzahar eta neskazahar gelditu ziren osaba-izoak. Martikoneko Pakok esaten zuen hamazazpi laguneko famillie ezagutu zuela Martikonen. Bai, bai, hamazpi lagun mayen otordukoan. Konta ditzagun: 11 senide, gurasoak Yoanes eta Zelestina, Osaba Joanmartin, izoa Jonapraxke, attuna Joanpatxiku (kurandero famatue) eta attunaren arreba Joanajoxepa, hamazpi.

Alorreko lanak egitten, belarrean, ixtorlekuan, liñoa hari bihurtzeko etxe bakoitzak zuen industri koxkorreko tresnak erabiltzen, txoatillez artillezko harie egitten, karobirako egurrre eta harrie ekarri eta karobie sutu, etxean arta yotzen, gari yotzen, Leitzelarretik ekarritako belar luzeak bihurrituz alkiak egitten eta illuntzean erdisukalde haundiaren inguruan yolasean: behi gorriak umea egiteko denbora betea. Behi parea ongi hezie lorrerako eta itsokarako. Hiru axuri gaitses. Arkaxteak ernari gelditu gabe perakatu beharrak. Ollo lepasollek egunero arrultze erruten duela ekulluko zerrimiztoan. Mirue sartu ziztu bizin eta txitxe eraman. Zerramak sei ahardi eta bi ordotx egin. Betizue iñon ere ez aidi eta bille eta bille eta Mandatxixeko pago sardekan lepoa sartu eta ezin ateraz hille. Sokari antzaille hautsi eta berrie egin beharra. Aizkora ezteran zorroztu eta gero zorrotzarriz apixarra atera. Igandeko sermobean apezak egindako eskea, Ameriketan hildakoari ezkillebotatzea erakutsi duela, halako eta holakoren preobea egin duela eta subie apustularie eta amagiarreba zekena dela eta nehiko lanak izanen dittuela. Ameriketatik senideak egindako karta. Gerratetan egindako lapurreta, etxe erretze eta heriotzak. Exkurrabek leittu duela testamentue eta Altzuko belatsoaren mugak berezten...Beti elkarrekin, egun guzin kontuk berritzeko prest. Leitzelarren artzai zegoena ez beste guziak elkarrekin.Eta artzaiek ere biltzen ziren elkarrenagana Pillotasoron.

Yolas asko egitten zen, kontu asko esan, gertaera asko berritu, gizaldiz gizaldi zetorren historí asko attun-amonetatik edo gurasoetatik gazteetara irautzen zen. Hameika aldiz entzunek gara: “Gure aurreko zaharrak hala esaten zuen.”

### ASTAITZAGAKO EKULLUKO ZOKOA

Astaitzagako ekullun bada zoko bat artegi aldera frantzestean urdayek gordetzeko egiñe. Fratzesek harrapatzen zuten guzie eramatten omen zuten eta yakirik gabe gelditzeko beldurrez gorde omen zittuzten. Hala esaten zuen gure aurreko zaharrak.

### KUTSURIK EZ DUENA

“Minbizie kutsukoa al da?”, behin galdetu nion gure atte zenari. Eta attek erantzun zidan: “Gure aurreko zaharrak esaten zuen edertasune bakarra dela kutsurik ez duna”.

**SORGINKERIAK?**

Lagun mordoska yolasean ari zen apez bat tartean zutela eta Santosek esan zuen egokieratik:

"Gure aurreko zaharrak esaten zuen Azintzio egunen Jainkoa zerueta iyo zenen hodai eder batek estali zula".

Esan bazuen esan zuen, apezarekin ez zen giro.Honela mintzatu zen apeza:

"Ez gizona, ez, holako gauzik ez da sinistu behar. Hodeiaren kontu horik denak sorginkeriak dira, gezur hutsak. Aurreko zaharrek beti eguraldia zuten burutan eta hortik sortuko zuten hodeiaren kontu hori".

Eta Santos sartu zuen lurpean denen aurrean.

Ikus dezagun zer dion Bibliak:

"Hau esanik, gorantz igo zen Jesus haien begi aurrean, hodei batek begietatik ezkutatu zien arte". (Apostoluen Eginak 1-9)

**ANDREA ETA KATUE ARMARIOAN**

Etxalde oneko nagusie zen Josepe. Sega pikatzalle ona zen. Eta segari izugarrie ere bai. Goizean goiz hasi segan eta morroiek gosarie ekartzerako sekuleko palda ebakitzen zuen. Leitzelarretik usanbelarrak ekarri eta satorrentzat belenoa egitten ere bazuen artea. Muxarrak harrapatzen ere saiatzen zen. Garraztea gora iyo, intxaurrean zepoa paratu eta urtero muxar mordoska harrapatzen zuen.

Morroieri burutxe egiteko agindu zion eta Josepe mendire yoan zen, artaldea gehiena arkera zegoen eta aharie emattera.

Uste baino abudoago etorri zen Josepe menditik etxera eta non harrapatzen ditto bere andrea eta morroie goxo goxo obean.

Etzen giro. Hartu beharreko erabakiak abudo hartu zituen.

Andrea larrugorritan yarri eta katuarekin armarioan sartu zuen. Eta badakizue katue toki itxin buztana arrotute futakoka zeinen gaistoa yartzen den.

Hurrengo egunean atera zituen armariotik, andrea dena atzamarkatue, haragi bizitan, kristaberen itxurik ez zuela.

Morroiek bazuen igadeetan mezara yoateko traje kolorgaistatu bat eta Josepek burtzin gurituarekin plantxatu zion eta dena errea gelditu zen. Hurrena morrieren goardosola hartu, atarin trankaren gainean yarri eta ballenak moztu zizkion aizkoraz. Txarkeri hauek morriek etzekiela egin zituen.

Hurrengo igandean morroie hasi zen trajea yazten eta hanka sartzekoan trajea zarratatute gelditu zen. Ahal zuen bezela arrapa txar batzuk yantzi eta abitu zen presaka mezara, bi dandak yoak baitziren. Eta zera, atarire ateratzen eurie leher. Gelara yoanda hartu zuen goardasola eta hasi zen irikitzen : arrosario alek ematten zuten zintzilik.

**HARRI ALEAK ERBIE HIL**

San Joakin egunen harri yasa izugarrie egin zuen, ollo arrultze haineko harri aleak botatzen zittun eta Eskolabeneko alorren erbie hil zuen. San Joakin egune uztaren 26a.

**SOLDADUKIN MUTUR YOKA**

"Gerrondoan Leitzen soldadu asko eondu zen eta mutur yoka izugarrie izandu zen. Elurre zeoan. Inaxio Toribionan andregaieri zerbatte in zioan soldaduk eta hortatik biztu zen sue. Lendik e yendea nazkatuxea zeoan soldadukin eta Leitzeko motillek mutur yoka ekin zioan. Ni re aittu nintzen yoka eta behatz kaskoak larrutu nittun. Soldadu gallego bati bi hortz hautsi zezkioan. Karrapen neskak negarrez. Gero etorri zeen goardazibillek eta soldadun alfereza. Martin Kaxkagorrik ziztorra ekarri zun etxetik eta Gaztañaganen yaten ari giñela Joakin Peustenekoa eaman zuen detenittute koartelera. Joakin etzen arittu mutur yoka baño soldaduk hure izautu eta horrengati eraman zuen. Joakin soldadusketik etorrie zen permisoakin eta kastigun bat haundie emanen ote zion bildur giñen. Ordun Bittorio Hojalateroana zeoan alkate eta harengana yoan giñen. Esan giñion zer gertatzen zen eta yoan zen koartelera eta libratu zun".

"Gure koñadoa, Julian zena, ikaragarrik emana zen ordun. Gabardina zuri batekin zen eta soldaduk korroa inda euki zuen eta hark aurreatzen zen guziri eman itten zion. Koarentaizinkoan zen hori".

Joxeanjel Joanmarinak kontatu dit.

**AITZURRE ETA BASTONA.**

"Gauzek ederki aldatu dittok gure denboan. Lenao larogei urtetan aitzurre izaten zien zaharrak eskutan eta oaiñ hirurogei urtetan bastona".

Betraneko attunak, Oxakiñek, esana 1999-ko hilbeltzaren 24an.

**HILDAKOA AGERTU**

Etxe batekoei aspaldi hildako zahar bat azaldu omen zitzaioan Karobitxuloko lizar gañen eta meza sarie eskatu omen zioan.

**"GALTZAMOTZA" ERRE**

Gizon bat zahartuta ondoren ere galtzamotzakin ibiltzen zen eta "Galtzamotza" deitzen zioan.

"Galtzamotz" hau zahartutakoan hasi zen erretzen. Etxekoek ikustea ez zuen nahi eta alorgoieneko latesiz kanpoko pagopean erretzen zuen berak egindako zigarroa.

Garai hartan etzen poxpororik eta soskorrarekin bizten zuen zigarroa. Egun batean badie soskorra sukaldeko suan biztuta atarire eta ateetan auzoko bat eupetakoka. Hark ez ikusteagatik sartu zuen soskorra poltsan eta galtzak sue hartu eta erreta hil zen.

**NESKAMEA ERRE**

Lehenago sue emendatu eta prasak hautspen estaltzen zituzten, hurrengo egunean sue bizteko. Batzutan prasak itzaltzen ziren eta ordun auzotik ekartzen zuten sue.

Etxe bateko neskamea yoan zen auzora suaren eske eta eltzean hartu zuen sue. Bidean haize haundie zebilen eta eltzetik prasak ateratzen zizkion. Ordun eltzea mantalakin estali zuen eta mantalak sue hartu eta erreta hil zen.

## AKERRRAREN ANTZA HARTZEA PEKATU LARRIE

Martxeneko herriko Zenon urte bateko iroteitan akerraren adarrak buruan yarrita atxauretu omen zen.

Gero, Don Manuelek sekuleko sermobea egin omen zuen : "Akerraren adarrekin zebilela hil balitz kondenaturik zegoen, infernuko zolara yoanen zen. Luziferrek betirako sutan kiskaltzera eramanen zuen. Akerraren antza hartzea pekatu ikaragarria da".

## LOMAREN ZAKURRAK

Lomaren zakurrek beldur haundia ematen omen zuten. Karlisten atzetik botatzen omen zituen eta ez omen zen erraza haiei ihes egitea.

Santa Kruz apezak bi lagun preso omen zeamazkien esku banatatik elkarri lotuta. Eta Leitzelarren barrena zizela Lomaren zakurrak atera. Ahal zuena ahal zuen lekura ihesi eta ordun bi lotutakoek alde egin. Gero harrobi baten gañen yarri lokure eta beste harri batekin yoka hautsi omen zuten. Eta lokuretik libre gelditu zirenen bik beren etxeetara pozik.

Jose Maria Loma militar arabarra zen (Añana Gesaltza, 1822-1893). Karlisten kontra ibili zen karlisten gerrateetan eta Sana Kruzen kontra gogotik aritu zen.

## OTSOAK BETI AL BATEKO ARTALDEARI EKITEN

Otsoa badie bide bat barrena eta bidearen bi aldeetan bi artalde daude, bat eskuñetara eta bestea ezkerretara. Otsoak beti alde bateko ardiak yaten ditto.

Auzmendiko Fermiñek kontatu dit hau, baina ez daki eskuñekoari edo ezkerrekoari ekiten dion.

**ASTAITZ**




Kilometro batetik bestera ez dirudi lehen añe bide dagoenik (Praxola).

# MANUEL LASARTE...

1999 garren urteko abuztuaren berezitasunez gogoraturik, zerbait idatzi bearrez aurkitzen naizenez, ortaraxe nijoakizute umiltasun osoz irakurle izango zeraten Leitzatar guztioi. Mende zaar onek emango duen azkeneko abuztua aurtengoa degula jakiñik, agurtu dezagun bein betiko borondate onez eta biotz xamurrez. Ez nuke esango den dena gure gustokoa izan danik orain artekoa, baiña gauzak datozkigun bezela artu bearra daukagu guk derrigorrez. Beraz, bukaera goxo bat eskatzen diot mende zaar gogoangarri oni euskal erri osoaren izenean mundu guztiarentzat, eta ea urrengo sotuko zaigun berria obeagoa ematen duen gure Jaungoiko Jaunak. Nik zaartu naizenez, lur ontako eginkizunak bete samartu ditudan errezeloa daukat, baiña gaur eta gerora jaioko diran aurtxo maitagarri denentzako zorioneko bizitza eskatu nai nioke ogeita bat garrengo mendeari bada ez bada ere. Ta goazen Leitzako pasadizo batzuk esplikatzera poliki poliki, iñor mindu arazi gabe. San Tiburtziotan ospatzen dira erri ontako pesta nagusiak, aundikiro gaiñera. Aurtengoz, abuztuko illaren amaikagarren eguna asteazkenez egokitzen da, ta ez dakit diodan San Tiburtzio egun berean edo bezperatik asiko diran pestak. Amabirjiñak bitarteraiñoko jaiak egin oi ziran leen, baiña agian balitekie aurten zerbait geiago luzatzea ere. Aurreragotik asita pestetan gastu ugari sortzen dala badakigun arren, nik entzun dedanez ez dago kezkatu bearrik gai ortan, iaz gabonetan loteriaren bidez diruz ongi jantzitako familiak bai omen ditugu Leitzan. Ez noski erri osoan, ori zailla da ta, baiña Amazabal izeneko frontoi ingurura gordoaren zatiren bat aizeak eraman omen zuen, eta uste gabeko jendea aberastu alajaiña. Ez det batere gaizki billatzen, nik ez nuen gordoarekin gizentzeko suerterik izan eta ementxe segitzen det beti bezelaxe plako eta zimel. Jokatzeko geiegizko gogorik ez dedala ere ez nuke ukatu nai, baiña azi gutxi ereiten dan soroan edo larrean, ezin liteke labore asko artu iñolako moduz, eta neri gauza ber bera gertatzen zait iñungo dudarik gabe. Dana dala gure Leitzan abuztuko San Tiburtzio pestakin batera, tallarretan lanean dabillen jendeak urteero bezela oporrak ere artuko dituelakoan nago, ta ez dira gaizki etorriko pixka bat paseatuz eguneroko nekaldiz aaztu ta gorputza eta burua atsedendu aal izateko. Nik, gaztetan Eibarren ganadu perratzen jardun nintzan garaian, ango parrandero baten ateraldi polita ikasi nuen, eta auxe da. Erriko pestan bukaeran pena izugarriz, onela esan omen zioten bere lagunei: Bueno mutillak, ni banijoak etxera zuek nahi dezutena egin. Biar goizetik berriro lanean asi bearra zeukagu, au ez dek martxa tajuzkoa, jai biaramon guztiak jai artuko nizkikek nik pozik. Eibartar arek ez zuen lanik eskatzen, bizimodu lasaia baizik. Baiña emen eguneroko ogi berria eskuratu aal izateko, badakigu saiatu bearra daukagula modu batera edo bestera ta... Agur Leitzatar denoi, ni ere zuen senide bat naizela ez aaztu mesedez, urrengora arte.

Urtero sortzen dizkit
pozezko irriparrak,
Plazaola errebixtan
idatzi bearrak.
Nere lagun zerate
gazte eta zarrak,
pestak ongi igaro,
agur Leitzatarrak.

Idazten det biotz onez
ta umore alaiz,
aztu gabe Leitzako
arrebaz ta anaiz.
Erri maite au buruan,
erabiltzen det maiz,
bai aurrera antzean ere
bizi baldin banaiz.

Doiñua: Maritxu nora zoaz.

Manuel Lasarte

# ASMAKIZUNE...

**EZETZ ASMATU NOR DIEN?!!!**

Gure errin izanagatik, ez tie bertakoak, euskaldunek.

Eztie lanea etortzen, beño dirue barra-barra irabazten due.

Berdea aitz gustokoa baduere, eztie ekologistek.

Etxeik eztue behar, ba baitue.

Guk eztittu matte, eta ezta ak gure, beño ez joaten orrantik.

Pakezalek emen die, beño eztue ematten gerra besteik.

Txintxo ta lasai earren bazabiltzere, etorriko zaizkizo bazterrak nastu ta zirikatzea.

Zakurrek die beño, bi ankakoak orden...

ZORIONAK, ASMATU ZO!!!

DIZTEALA BEINGOZ, ZE ARRAIO, UTIKE!!!

# HAUTESKUNDEAK LEITZAKO UDALETXEAN...

Aldaketa haundi bezain esanguratsuak etorri dira Leitzako Udalera aurten. Franco hil zenetik sekulan gertatu ez dena gertatu da 1999 honetan: udal talde batek gehiengo absolutua izanen du, 11 zinegotzietatik 6 eskuratu ondoren. Herriko hiru sektore zabalenek (ezker abertzalea, eskuin abertzalea eta eskuin espainiarrak) ordezkaritza orekatua izan ohi dute azken hogei urteetan eta orain oreka hori guztiz hautsi da, ezker abertzaleak gehiengo absolutua lortuz. Beharrezkotzat jotzen dugu hausnarketa sakona egitea errealitate honetaz, aldaketa haundia izan baita eta eragin duten faktoreak leitzar guztiok oso kontutan hartu beharrekoak.

Hauteskundeetan emaitzak ez dira kasualitatez etortzen. Botoak pertsonek ematen ditugu eta denek izaten ditugu gure arrazoiak botoa nori eman erabakitzerakoan. Leitzan eman den aldaketa haundiaren arrazoi nagusiak aurkitzea argitu beharreko puntua dela uste dugu.

**EH: garaipen garbia, boto asko bereganatuz (%37ko gorakada):**

* Botoemale gazte berria, abstentzioan zegoen botoa eta EA-ko ohiko botoemalea izan dira EH-k eskuratu dituen boto berrien iturri nagusiak. EH-k ilusioa sortu du eta leitzar gehienen konfiantza merezi izan du. EH-ren gorakada Euskal Herri osoan eman bada ere, egia da halaber Leitzan botoemale erdiek eman diotela botoa Udalerako, aurreko urteetan ez bezela. Beraz, herrian zerbait gertatu da, Euskal Herri osoan eman denaz gain.

* Alde batetik, alkatea eta zinegotziek burubelarri herriaren alde ihardun dute, akatsak akats, eta hala ikusi izan da herrian. Azpiegiturak hobetzen (errepideak, industrialdea, futbol zelaia, igerilekua, etxe berriak...), lanpostuak sortzen, gure kultura suspertzen (euskararen normalizazioa bultzatzen, Leitzan antolatutako kultur ekitaldiei azpiegiturak eta dirulaguntzak eskeintzen...), gazte eta adinduen beharrei erantzuna bilatzen (elkartu ahal izan daitezen), eta abar. Hitz batez, leitzar guztien zerbitzura ihardun dute.

* Lana egiteko tankera berria izan da. Alkatetzatik elkar lana bultzatu zen hasiera-hasieratik. Hamaika zinegotziena lortu zen lehen bi urteetan eta UIL-koen jarrera negatiboak soilik, udaletik alde eginez, ekarri zuen abertzaleen artekora mugatzea azken bi urteetan. Zinegotzi guztiei zabaldu zitzaizkien lanerako ateak, denek eskuratzen zuten udaletxera iristen zen informazioa, denek zituzten ardurak udal batzordeetan, denen hitza hartzen zen kontutan... UIL-k udaletxetik alde egin zuenean moztu zen ordura arte oso ongi garatzen ari zen hamaika zinegotzien arteko elkar lana. Alkatetzatik bultzatu den lan estilo hau saritua izan da hauteskundeotan.

* Ezker Abertzaleak ez du ahazten Leitza Euskal Herrian kokatua dagoela eta, beraz, Leitzako udalak zerbait egin beharra duela Euskal Herri osoaren interesak babesteko. Presoak etxera ekartzea, ikurriña masta nagusian jartzea, Lizarra-Garazi Hitzarmena bultzatzea eta abar gure udal lanaren ardatz garrantzitsuak izan dira eta aurrerantzean ere hala izanen dira. Udalean Euskal Herri osoari eragiten dioten erabaki politikoak hartzea egokitzen da batzutan eta hori ezin daiteke ekidin. Leitzarrek hala ulertzen dutelakoan gaude.

**EA: beherakada nabarmena, ohiko botoemale askotxoren botoa galduz (%20ko jeitsiera)**

* Ez da gure asmoa talde honen lan osoa baloratzea, baina beharrezko ikusten dugu aipamen batzuk egitea. Oso positibotzat jotzen dugu lau zinegotziek izan duten jarrera. Hasieratik elkar lanaren beharra ikusi zuten eta lau urte hauetan burubelarri inplikatu

dira alkatearekin eta gainerako zinegotziekin batera herriaren aldeko lanetan. Leitzarrek ere hala ikusi dute. Horregatik ez dira ulertzen beren alderditik jaso dituzten kritika publikoak eta egin zaien bazterketa. Guk ez dugu ulertzen eta leitzar askok ere ez dutela ulertu uste dugu.

* Kritikagarria iruditzen zaigu EA-k hautes-kanpainan etxe guztietara zabaldu zuen orria. Bertan kritika gehienak HB-ren aurka zuzentzen zituen eta oso doinu gogorrean gainera. Nola buka dezakete idatzia elkar lanerako deia eginez hainbeste egur eman eta gero? Ezker abertzalean oso garbi dugu harreman estuak izan nahi dutugula EA-rekin Leitza eta Euskal Herriaren onerako, baina egia da ere EA-k oso zail jartzen duela abertzaleen arteko elkar hartzea bere jarrera erasokor honekin eta egiten dizkigun fundamentorik gabeko kritika zorrotz horiekin.

* Leitzan ez dira ulertzen EA alderdiaren helburuak. EA-k Lizarra-Garazi Hitzarmena sinatua du PNV eta HB-rekin batera Euskal Herrira pakea eta demokrazia lehenbailehen ekartzeko eta Leitzan, alkatetza lortzeko, elkarren arteko liskarra bultzatzen du. EA-k Leitzan norabide politikoa osotara galdua duela iruditzen zaigu eta bide horretatik mesede ttikia eginen diola Leitzari nahiz Euskal Herriko pake prozesuari. EA-ren jarrera negatibo hau leitzarrek gogor zigortu dutela ikusten dugu.

**UPN: porrot haundia, presentzia sinbolikoarekin gelditu delarik (%30eko galera)**

* UIL bezela mozorrotuta, UPN alderdiak leitzar askoren konfiantza eskuratu zuen 1995ean. 600 boto inguru haiek Leitzako sektore zabalen konfiantza zuela ziurtatzen zuten. Politikan sartu gabe Leitzaren alde lan egitea izan zen bere planteamendu nagusia. Preso politikoen gaian bezelaxe beste hainbat gaietan (gazteenganako herriko goardia zibilen errepresioa, adibidez) UPN-PPren politika egin bazuen ere, UIL lehen bi urteetan beste zortzi zinegotziekin elkar lanean aritu zen. Baina 1997ko Uztailean, Euskal Herriak politikoki astindu haundia hartu zuen garai batean, ezker abertzaleari eraso politiko gogorra egiteko erabakia hartu zuen, alkatetza kentzea beren helburuen artean zegoelarik. Horretarako, ikurriÒa, euskara eta pankarten inguruko bere planteamenduak onartzeko txantaia egin zuen. Non gelditu ziren politikan ez zirela sartuko leitzarrei eginiko promesa guztiak? Geroztik bi urte egin dute UIL-ko zinegotziek udaletxera hurbildu gabe eta Leitzaren alde lanik egin gabe. Ondorioz, berengan konfiantza jarria zuten leitzar askok zigortu egin dute orain UPN. Hiru udal taldeetako zinegotziek egiten dute politika udaletxean; halabeharrez. Eta ez da on hori gorde nahi izatea edota, are guttiago, emandako hitza ez betetzea.

* Ezin da ahaztu urte bat aurretik, herriko jaietan, UIL-ko alkategaiak tiroz bota zuela lurrera ikurriÒa Santiburtzio egunean plaza jendez beteta zegoen une batean. Ardura politikoa duten pertsonengandik herritarrek beste jarrera espero dute. Ez gaude 1936ko altxamendu faszistaren garaietan eta leitzarrok frankistek herrian eta Euskal Herri osoan zabaldu zuten ikara eta izua gainditzeko tenorea dela pentsatzen dugu. UPN oso zigortuta atera da hauteskunde hauetatik eta indarra galduz joanen dira aurrerantzean ere denon eskubideak aintzat hartzen ez badituzte.

**Zinegotzien jarrerei buruzko ondorio batzuk**

Hauek dira, funtsean, udak hauteskunde hauetatik gure ustez atera daitezkeen ondorio nagusiak:

* Udalean zinegotzi guztiek elkar lanean ari behar dute. Alkateak denen parte hartze aktiboa ahalbidetu eta bultzatu beharra du. Herriaren mesederako egin behar dute lan alkate eta zinegotziek. Hamaika zinegotziek talde sendo bat osatu beharra dute bide horretan.

* Proiektu politiko ezberdinek elkar hartzea ezinezko egiten duten puntuetan, udal talde bakoitzak bere proiektu politiko orokorraren araberako jarrera izanen du. Hau une puntualetan gertatuko da, ekidinezina eta normala da, eta ez du elkar lan orokorra oztopatu behar. Elkarri egin dakizkiokeen kritika politikoak onuragarriak dira eta ontzat eman behar dira; baina gezurretan, faltsukerietan eta eraso basatietan oinarritzen diren jokabideak onartezinak dira, elkar lanerako oztopo gaindiezinak dakartzatelako.

* Euskal Herrian bizi gara. Gure nortasuna eta kultura dugu. Hamaika zinegotzien betebeharra da euskal nortasuna eta kultura suspertzea eta beren garapen normalizatua bilatzea. Nafarroaren izaera babestea ere hamaika zinegotzien beste zeregina da.

* Alderdi bakoitzak koherentea izan beharra du bere proiektu politikoarekin. Halaber zintzoa bere zinegotzi eta botoemaleekin. Eta garatutako lana, txukun egiteaz gain, ongi azaldu behar zaio herri osoari.

* Ezin buka dezakegu kapitulu hau aurrerantzean udaletxean zinegotziek izanen duten arrisku bat aipatu gabe: gehiengo absolutua lortu duen taldeak erabaki guztietan bere iritziak soilik aintzat hartzea eta guttiengoan geratu diren bi taldeek, oposizio lana egiteagatik, alkatetza eskuratu duen taldearen aurka erabat aritzea, herritar guztien kalterako. Halaber, dei egin behar zaie herritar guztiei, talde irabazlearen jarraitzaileei bereziki, herrigintza guztia alkatetzaren gain utz ez dezaten. Herria herritar guztien lankidetzaz atera behar da aurrera eta hori izanen da aurrerantzean ere leitzarrek geure bizkar izanen dugun zeregin nagusia.

**Nazio eraikuntzari buruzko beste hainbat hausnarketa**

Leitzako hauteskunde hauek nazio eraikuntzan garrantzitsuak diren hainbat ardatzez ere zerbait esan dute.

* EUSKARAREN NORMALIZAZIOA BULTZATU. Udaletik lan haundia egin da euskararen normalizazioaren bidean. Helburu hori errazteko Leitza UEMA-n sartu zen bere garaian. UEMA-k (Udal Elebidunen Mankomunitateak) euskara normaltasunez erabili nahi duten udalerriak hartzen ditu bere baitan eta euskaldun guztioi harremanak euskaraz normaltasunez egiteko bidea eskeintzen digu. Leitzako alkatea UEMA-ko lehendakaria izan da urte hauetan. Gaur egun Leitzako udalean leitzar guztiok euskaraz egin ditzakegu gure eginbehar gehienak.

Gai honetan, zoritxarrez, badira bere ama hizkuntzaren aurka ari diren leitzarrak. Hor dugu, adibidez, Jose Javier Mujika UPN-ko alkategaiaren jarrera, haurrak eskolara zeramatzala, autobuseko txoferra izanik eta lan horregatik diru publikoa kobratuz, ikasleei euskaraz ikastearen aurka mintzatu zitzaielarik. Eskolako Zuzendaritzak atentzioa deitu behar izan zion, umeei egiten ari zitzaien presioa zela eta.

Gauza guzti hauek leitzarrek kontutan hartu dituzte botoa ematerakoan eta, euskararen aldekoen lana positiboki baloratu duten bezela, euskararen aurka ari direnen jarrera zigortu dutela ikusten dugu. Horregatik, leitzar guztiek euskara indartzeko ahaleginetan jarraitu behar dugu, euskara ìLingua Navarrorumî gure kulturaren balore haundiena baita. Euskarak Europako hizkuntza ofizialek duten maila bera lortu dezan arte.

* GURE KULTURA BULTZATZEKO, AZPIEGITURA BERRIAK BEHAR DIRA LEITZAN. Urte asko darama herrian hainbat taldek gure kultura sustatzeko lana eginez. Hor daude Kultur Astea (21 urte jarraian egin delarik), dantzariak, txistulariak, korala, musika eskola, leitzarrek eginiko filmeak, artesauen lanak, margolarienak, idazleenak, euskaltegiko eta Nafarroa osora hedatu diren euskara irakasleak, Karrape Irratia, Plazaola aldizkaria,

danborradak, kontzertuak, antzerki saioak, hitzaldiak, mendi irteerak eta oso luze jo dezakeen zerrenda. Ekitaldi ugari antolatzen da Leitzan eta gehiago antolatuko litzateke azpiegitura egokiak baleude.

Herrian beharrezkoak dira kultur etxe txukun bat eta egiten den lan guztia koordinatu eta babestuko lukeen kultur teknikaria. Orain arte zailtasunak izan dira etxe egoki bat aurkitzeko. Baina iritsi da Leitzan dugun etxe egokiena berreskuratu eta kulturgintzari eskeintzeko garaia: koartel-etxea, hain zuzen ere. Herriarena da eta herriari itzuli behar zaio. Gaur egun leitzarrak, gazteak bereziki, beldurtzeko eta erreprimitzeko soilik balio duen etxe hori leitzarren zerbitzuan jarri beharra dugu. Hauteskundeetako emaitzek udalari agindu hau eman diotela uste dugu.

* GAZTEEI LOKAL BAT ESKEINI. Leitzar gehientsuenek badituzte era ezberdinetako lokalak biltzeko, nahiz behar den guztia ez izan modu egokian. Baina gazteek ez dute non elkartu, beren beharrei erantzuteko dinamikak antolatu ahal izateko. Gazteen autoantolakuntzarako baliogarri izanen den areto egokia eskeini behar die herriak. Eta lan hori udalari dagokio. Hauteskunde hauetatik atera daitekeen beste ondorio dela uste dugu.

EUSKAL HERRIA ASKATU-ko kide batzuk

# EGUZKI-EKLIPSEA...

Leitzen pesta egunean goizeko hameiketan hasiko da eguzki-eklipsea eta eguerdiko ordu bata eta hogei ta hemezortzi minututan bukatuko da. Hemen ez da eklipse osoa izanen, nahiz eta Eguzkia asko moteldüko duen. Gaupasa egin eta azera gainetan zehar etzanean daudenentzat bai izanen da eklipse osoa.

Eklipse osoak 100 kilometroko zabaleroa izanen du. Ternuako hegoaldean hasiko da. Handik Europan barrena joanen da eta Indiako Bengalako badian bukatuko da, ilunabarrean.

Europan Erresuma Batuko hegoaldetik sartuko da eta Plymouth-en minutu bat eta 39 segundokoa izanen dute. Londres eklipse osotik kanpora gelditzen da, baina Eguzkiaren zatirik haundiena ilundua ikusiko dute.

Frantziaren iparraldetik iragoko da. Paris ez du harrapatzen osoak, baina oso gutxi faltako zaie osoa izateko; Eguzkiaren %99 ilunduko zaie.

Alemaniako Stuttgart erdiz erdi harrapatzen du eta 2 minutu eta 17 egundokoa izanen dute eta Munuch-en 2 minutu eta 8 segundokoa.

Errumaniako Bukarest bete betean harrapatuko du eta 2 minutu eta 18 segundoko ilunbea izanen dute.

Eguzki-eklipsea gertatzen da Lurra eta Eguzkiaren artean Ilargia jartzen denean eta Ilargiak egiten duen itzalak Lurra harrapatzen duenean. Eguzki-eklipseak hiru klasetakoak izan daitezke : osoa, ezosoa eta eraztun-eklipse (erdaraz : total, parcial eta anular).

Eguzki-eklipsea osoa da Ilargiaren itzalak Lurraren zati bat iluntzen duenean.Ilunbe honek 269 kilometroko zabaleroa hartzen du eta gehienetan bi minutu eskas irauten du leku bakoitzean (gehienez zortzi minutu iraun dezake).

Eguzki-eklipsea ezosoa da ilargiaren argi-itzalak (penumbrak) Lurra harrapatzen duenean. Eguzkia moteltzen du baina ilundu ez.

Eguzki-eraztun eklipsea da Ilargiak Eguzkia erdi aldean iluntzen duenean baina inguruan eraztun bat argitan uzten duenean. Eguzkia estaltzeko Ilargia Lurretik errutiegi dagoenean gertatzen da.

Euskal Herrian azkeneko Eguzki-eklipse osoa lehengo mendearen azken aldera egin zuen. Oiloak laisterka joan omen ziren etxera ilunabarra zelakoan.Hala esaten zuten gure aurreko zaharrek.

Ilargi-eklipseak gertatzen dira Lurraren itzalak Ilargia harrapatzen duenean eta bi klaseatakoak izan daitezke : osoak edo ez osoak.

**PLANETAK**

Goazen orain astronomia piska bat jorratzera. Has gaitezen gure Lurraren senide diren planetetatik. Gure Eguzkiak bederatzi planeta ditu : Merkurio, Venus, Lurra, Marte, Jupiter, Saturno, Urano, Neptuno eta Pluton.

Jupiter da planetarik haundiena. Bere diametroak 143.800 km ditu eta gure Lurrak 12.756 km. Bere masa Lurrarena baino 318 aldiz haundiagoa da. Eta txikiena Pluton da. Bere diametroa 2.400 km.

Merkurio eta Venus ez beste guziek badituzte sateliteak.

Jupiter, Saturno, Urano eta Neptuno gasezko planetak direla esten da baina Jupiterrek eta Saturnok erdialdean zerbait solidozkoa ere badute; Urano eta Neptuno osotara gasezkoak diren edo ez, ez dago garbi.

Merkurio.- Diametroa: 4.880 km.Distantzia Eguzkitik: 58 millon km

Tenperatura egunez 450° C eta gauez -180° C

Venus.-Diametroa: 12.180 Km. Distantzia Eguzkitik : 108 millon km

Temperatura 450°C

Lurra.-Diametroa: 12.756 km. Distantzia Eguzkitik : 150 millon km.

Satelite bat du: Ilargia. Ilargia guregandik 384.000 kilometrotara dago. Aurreneko aldiz amaerikanoak igo ziren Ilargira 1969-ko uztaren 21ean.Ilargiaren diametroa: 3.476 km.

Marte.- Diametroa: 6.976 km. Distantzia Eguzkitik: 228 millon km. Bi satelite ditu, oso txikiak, Fobos eta Deimos.

Jupiter.-Diametroa: 148.800 km. Distantzia Eguzkitik: 778 millon km. Satelite batzuk : Amaltea, Io, Europa, Ganimedes, Calisto, Leda, Himalia, Lisitea, Elara, Ananke, Carme, Pasifae, Sinope...Io-n sumendiak sutan daudela agertu zuten "Voyager" zundak. Hauek dira Lurratik kanpo orain arte aurkitu diren sutan dauden sumendi bakarrak. Zunda hauek Jupiterren unguruan eraztuna ere aurkitu dute. Orain arte uste zen Saturno bakarra zela eraztunak zituena baina zunda hauen bitartez jakin da Jupiterrek, Uranok eta Neptunok ere badituztela eraztunak.

Saturno.-Diametroa: 120.000 km. Distantzia Eguzkitik 1.427 millon km. satelite batzuk : Mimas, Encelado, Tetis, Dione, Rea, Titan, Hiperion, Japeto, Febe...Zazpi eraztun ditu. Lehenago hiru eraztun bakarra zituela uste zen baina "Pioneer" eta "Voyager" zundak azaldu dute beste lau ere badituela. Zer dira eraztunak? Nolabait esateko planeta inguratzen duten zinta baten itxurako hautsezko partikula, izotz puska eta harrikozkorrrak dira. Batzuk txikiak besteak hamarrenbat metro luzekoak.

Urano.-Diametroa. 52.290 km. Distantzia Eguzkitik: 2.872 km. Satelite batzuk: Miranda, Ariel, Titania, Oberon. Eraztunak ere baditu.

Neptuno.- Diametroa : 49.500 km. Distantzia Eguzkitik : 4.496 km. Sateliteak : Triton eta Nereida. Eraztun bat du baina ez du planeta osoa inguratzen.

Pluton.-Diametroa : 2.400 km. Distantzia Eguzkitik . 5.900 km. Satelite bat du, Caronte. Planeta hau da azkena aurkitua, Clyde Tombaugh astronomo amerikarrak aurkitu zuen 1930. urtean.

Asteroideak.-Marte eta Jupiterren tarteko orbitan dabiltzen gorputzak dira asteroideak. Baina badira batzuk Lurra baino gehiago hurbiltzen direnak Eguzkira, adibidez Adonis, Apolo eta Icaro. Bost mila inguru ezagutzen dira, baina uste da gahiago badirela. Forma irregularra dute. Ceres da haundiena eta bere diametroa 1.000 kilometrokoa da. Asteroide batzuk badituzte izenak. 1977an Nikloaj Chemykh astronomoak aurkitu zuen asteroideari GERNIKA izena jarri zion.

**EGUZKIA**

Maiatzaren azkeneko eguna da. Goizetik garbi, egun ederra dator. Haritzak, pagoak, lizarrak, gaztainak, sagarrak...denak ostatuak daude. Belarra nonahitik heldu da. Intsus loreak usai goxoa botaz. Izadia dena mugitua. Nork mugitu du?

Miztorra lorez lore dabil. Bere hegalak segundoko auskalo zenbat aldiz jeitsi eta igo egiten duten. Nondik ateratzen du energia?

Jesus laisterka dabil, ziztue politte! Ordu t¥erdi daramazki laisterka, izerdi putzuten dabil. Nondik ateratzen du energia?

Luis bere ehun da berrogei ta hamar zaldiko kotxean doa abiaduria izugarrian Bilboko burtsako balore merkatuko akzioen eta obligazioen saldu erosiak egitera.Kotxea gasolinarekin ibiltzen da. Gasolina petroliotik ateratzen da. Petrolio nola sortu da?

Gure bihotza gelditu gabe ari da lanean. Bihotzak egun baten egiten duen lanarekin hiru tona igoko lituzke metro bateko altuerara. Nondik aterazen du energia?

Ilunabarrean erauntsi ikaragarria egin du.Horik elementoak! Milioika litro ur bota ditu. Nork igo du ura hodeietara?

Erantzuna da energi guzia Eguzkitik datorrela. Fotosintesiaren bitartez hartzen dugu eguzkitik energia. Petrolioa ere orain dela milioika urte izan ziren organismo bizidunetatik sortu da. Eta Eguzkiak nondik ateratzen du sukaia?

Ezaguna da Einsteinen formula famatua E=mc. Honek esan nahi du kilo bat pisatzen duen edozein gauza energi bihurtuz gero Leitzeko etxe guzien zortzi urteko argiindarra adina izanen litzatekela, gutxi gora-behera.

Eguzkian lau hidrogeno atomo elkartzen dira helio atomo bat osatzeko. Osaketa honetan lau hidrogeno atomok pisatzen dutena baino zerbait gutxixeago pisatzen du helio atomoak. Zergatik pisatzen du bere osagarriak baino gutxiago? Gertatu dena da hidrogeno atomo horien zati bat energi bihurtu dela. Hemendik ateratzen du Eguzkiak energia. Eguzkiak segundu bakoitzean lau milioi eta berrehun mila tonako masa energi bihurtzen du.



Eguzkiaren diametroa: 1.392.000 kilometro. Bere errotazioa edo ardatzaren inguruan bira ematen 25 egun behar ditu. Eta gainera gasezkoa denez ez du dena batean ematen buelta, ekuadorren azkarrago ematen du poloetan baino. Bost mila milioi urte omen ditu Eguzkiak eta beste bost mila milioi urte biziko omen da. Beraz, bere biziaren erdian dago.

Eguzkiaren barrenean 15 milioi gradoko tenperatura egiten du eta bere azalean, fotosferan, 6.000 gradokoa.

**IZAR UXOAK**

Edozein gau ilunetan, Ilargirik ez dagoenean, ikus daitezke izar uxoak, hau da ziztu izugarrian arrastoa utziz aienatzen diren izar ibiltariak. Izarrak deitzen zaie baina ez dira izarrak. Gramo bat baino gutxiago pisatzen duten aleak dira. Espazioan dabiltzen puska ttikiak dira. Gure Lurraren atmosferan segundoko 42 kilometro edo gehiagoko abiaduran sartzen dira eta berotu eta urtu egiten dira. Horregatik ematen dute txinpartak botaz dabiltzen izarrak direla. Lurraren azaletik 100 kilometroko altueran gertatzen dira fenomeno hauek. Haizean sartu eta urtzen diren ale hauei meteoroideak deitzen zaie.

Batzuk haundiagoak dira eta lurreraino erortzen dira. Hauei metoritoak deitzen zaie. Hauetako bat, oso haundia, erori zen Arizonan orain dela milaka urte. Meteorito honek egin zuen kraterrak 1200 metroko diametroa du eta 170 metroko sakonera.

Urtean zehar izaten dira gau seinalatu batzuk, beste gauetan baino gehiago ikusten direnak. Gau hauetako bat Santiburtzio arratsa da. Meoroide asko dabiltzanean zoragarria da zerura begira egotea.

Kometaren bat irago berria delako eta hark utzitako aleak direlako edo beste nonbaitetik etorri direlako, urte batzuk izaten dira sekuleko pila ikusten direnak. Holako gau horietan segundoko berrogeitaraino kontatu izan dituzte.Izar guziak lekuz aldatzen direla ematen du.

1933ko urriaren 9a zen. Astaitzagakoak arta zuritzen ari ziren. Saski artoa eramanda Benardok begiratu zuen balkobetik eta ikusi zuen izarrak zebiltzela. Denak atera ziren atarira eta harrituta egon ziren begira hainbeste izar mugitzen ikusita. Izar guziak mugitu omen ziren. Ez omen zen bat bakarrik ere bere lekuan gelditu. Eta beldurtu ere egin ziren zerbait txarra gertatuko ote zen. Eta gero hogeita hamaseiko gerra hasi zen. Hori ekarri omen zuten izar ibiltariek.

Gau hartan Astaitzagako zaharrek esan zuten : “Lehenao izarrak holaxe ibilli eta errege hil zen.”

Eta Astaitzagako zaharrak ez zebiltzen oker. Metoroide asko ibili ziren gau hori 1885eko azaroaren 14a zen eta Alfonso XII. azaroaren 25ean hil zen.

## GURE GALAXIA

Izarrak galaxia izenez deitzen diren multzoetan biltzen dira. Gu Esne-Bidea izena duen galaxian gaude. Galaxiak izan daitezke eliptikoak, espiralak eta irregularrak. Gurea espirala da eta hiru adar ditu, Perseus, Orion eta Sagitarius. Gu bigarren adarrean gaude, Orionen. Gure galaxia ez da txikienetakoa, baina ez haundienetako ere. Ehun mila milioi (100.000.000.000) izar ditu. Bere diametroa 90.000 argi-urtekoa da eta lodieroa 16.000 argi-urtekoa.Gu erditik 27.000 argi-urtetara gaude.




Galaxiak milioika dira Unibertsoan, inork ez daki zenbat diren. Lehenago uste zuten gure Galaxia bakarra zela eta ikusten ziren mantxa zuriak lainoak zirela eta nebulosak deitzen zieten. Edwin Hubble astronomoa izan zen 1924. urtean ziurtatu zuena laino multzoak ez baina gurearen antzeko beste galaxia batzuk zirela. Baina lehendik esan zuen, 1755. urtean, K^nigsberg-eko filosofo Manuel Kant-ek nebulosa horiek gure Galaxiatik kanpoko izar multzoak zirela, eta ez hautsa edo partikulak Hark “unibertso-uharteakî deitu zien. Nik ez dakit zertan oinarritu zen hau esateko baina ez zebilen oker.

**UNIBERTSOAN BAKARRIK AL GAUDE?**

Gure mundutik kanpo bizi al da jenderik? Gaur arte ez dago pruebarik. Plater hegalariez asko hitz egin da baina deus ez dago garbirik.

Galaxiak milioika dira Unibertsoan eta galaxia bakoitzak milaka milioi izar ditu. Hainbestatik gure Lurra bakarra al da bizidun adimendunak dituena?

Unibertsoan gure Lurratik kanpo jenderik bizi baldin bada ere ez da batere erraza elkar topatzea, distantziak ikaragarriak baitira. Eguzkitik urrena bertena dagoen izarra Centaurus konstelazioan dago. Alfa Centauri da izar hau. Izar hau Centaurus konstelazioan dago eta ipar hemisferiotik ez da ikusten; hau ikusteko hego hemisferiora joan behar da.

Argiak segunduko 300.000 kilometroko abiadura du. Gaurko fisikak esaten duenez argia baino azkarrago ibil litekeenik ez dago, argiarena da abiadurik haundiena.

Bada argiak Alfa Centauri izar horretatik guregana etortzen lau urte eta lau hilabete behar ditu. Eman dezagun izar horrek planetak badituela eta han jendea bizi dela. Guk haiei galdetuko bagenie radioz "teleskopio onak al dituzue hor?" eta haiek segitun erantzun "Bai, bat badugu zuek ikusteko modukoa", erantzun hori guk jasotzerako zortzi urte eta zortzi hilabete iragoko lirateke. Bai, lau urte eta lau hilabete haruntz joaten eta beste horrenbeste honera etortzen.

Eta gure Galaxiatik ateratzen bagara oraindik zailagoa da. Magallanesen Hodei Haundia deitzen den galaxia da Esne Bidetik bertena dagoen galaxia eta 160.000 argi-urtetara dago.



Bertena dauden galaxietan Andromeda da gurearen antzik haundiena duena eta 2 milioi argi-urtetara dago. Eta badira milaka milioi argi-urtetara daudenak. Zeinen huandia eta harrigarria den Unibertsoa!

**ASTAITZ**

# PESTETAKO HITZEN POLTSIKO HIZTEGIA

**–Madrildik bihotzez–**

Irakurle xalo eta parrandazalea: Orri zeken hauetan bilatzen hasita, etzazu espero Leitzeko pesten inguruko hiztegi sentimental bat aurkitzerik. Ez bainaiz sentimentala. Ez naiz, ezta ere, ez etnologo ez kazetari. Eta hemen ez duzu aurkituko, beraz, ez pestegun hauen ezaugarri guzi-guziak jasoko dituen hiztegi etnolinguistikorik, ezta etxez etxe jasotako pasakari eta oroitzapenekin pinpirindutako dokumenturik ere.

Kurisoso xamarra. Horixe nauzu beharbada; zu bezala. Eta, berriroko batean, hemen Madrilen liburu baten peskitza kuriosoan nenbilela, ustekabean Josemari Azpirotz Tolatxeneko seme zenak Leitzeko mila inguru hitzekin burututako hiztegi bat aurkitu nuen, hiruzpalau ataletan argitaratua zegoena. Berriroago ikasi dudanez, 1963. urtean argitara azaltzen hasi baldin bazen ere, lan izugarri hau ez da inoiz bakarka argitaratu (saltsa askotako aldizkarietan baizik), eta óare penagarriagoa baitaó Leitzeko auzoen artean oraindaino ezagutarazi gabea da.

Kuriso xamarra nauzu, beraz, eta akaso ero aire batek joa ere bai: Zer bururatuko eta, udagiroan Leitzeko pesten txirrinta somatzen bainuen, Azpirotzek jasotako hitzen artetik pesten gaia gogorazten zidatenak argitaratzea erabaki nuen, zirt edo zart! Hauen arrimoan, Leitzeko eta Aresoko gaiez argitara diren beste testu batzuk ez eze nik neronek Leitzen bizi nintzela aditutako zenbait kontakizun ere erabili ditut, azkar antzemanen diozun bezala. Eta hauekin guziekin hitz multzo jakingarria osatuxe dudala uste dut.

Zerehala konturatuko zarenez, ordea, honako hauek ez dira herriko pesten inguruan aipa litezkeen hitz guziak, burruseren poltsikoan kabitzeko moduko ale batzuk baizik. Hemen ez dagoen majina bat esanera eukiko duzu zuk gogoan noski, eta lan polita dukezu hain xuxen, nik hona bildutako hitz hauen errenkoan, zuk gogoan izan hura paratzea, alfabetoaren ariora dagokion leku horretantxe, ttak! Bestela ere gerta liteke, ordea; hau da, hemen dakarzkizudan hitzetako batzuk zuk sekulan ez erabili izana. Baina horrek oraindik badu buelta! Mintza!

* * *

**abardinta**. Gaur gutxik erabiltzen duten hitza. Antza, erdarazko aguardiente-tik heldu da. Gaurko usuala edo pattarra horiek garai bateko abardinta ote? Edo, beste zerbait? Maria Jesus Gogorzak honela esan zidan:

*Mendittik yetsi te pinte bat abardinta ean tzuen.*

**aiergune**. Zeozer ospatzen den egun berezi edo pesteguna adierazten du hitz honek, nik uste: *"Boladuak izaten ziren lehenago holako aiergunetarako". (Mikela 83)*

**aker**. Gogoan daukat ume kozkorra nintzela, tripaundien hanka artetik nola hala lepoa luzatuz, Gartziarena aizkoldari haundia ikusi nuela plazan. Ezinean zebilen: akerra tokatu! Alegia, akerra = adar begi trinkoa, mozteko zaila oso.

*"Lehengo urteko pestetan zortzi aizkoldari atera hittuen plazara. Denak Bittoriok irabaziko zuela uste baño akerra atera eta lanak juxtujuxtuan bukatu".*
(Astaitz 94-3)

**aldaro**. Azpirotzek honela adierazi zuen hitz hau: "Bandazo de quien no puede tenerse en pie". Zein mozkor ikusi ote zuen balantza hartan? Hona adibideak:

*"Ta dantzan ai dela, buelta emattekoan ze in do? aldaro inde leio gañea erori"* (Sasiziztulari 91)

Azpirotzek *berak aldaroka hitza itzuli zuen: "Dando bandazos". Ostatutik atera ta or yoan da aldaroka".*

Azken honek Itziar Sagastibeltzak aspaldi kontatua gogorarazi dit:

*Nere senarrak kontatzen do txiste at oso politte, Berutakoa. Ba, Zoko izena duna esaten do, ez?, bai. Etortzen emen tzen ianden krixton mozkorra arrapatute. Goiz beten eldu emen tzen apeza argimeza yotzea, eta eldu emen tzen ori dena mozkorra aldaroka ta, esan emen tzion:*

*-Egunon, Zoko!; zer, lengo urteko ardoak eo aurtengoak tie oik?*

*-Lengo urtekoakin etxea billatzen giñun biño aurtengoak naiko lan ematten due!*

Ikus *perdes, perdeska.*

**ankalepoka artu, ibili**. Ikus txikoan artu.

**antzar-yoko**. Azpirotzek honela itzuli zuen: "Lit., juego de gansos. Consistía en arrancar el cuello de los gansos, colgados de un arco, por jinetes montados a caballo". Bai horixe! Nik gogoan dauket pestakizun hura ikusi izana. Eta berriro, fotografiren batean edo Fagoagaren marrazkiren batean topatu dut antigoaleko irudi huraxe.

Baina esaera honek badu beste adiera gordinago bat:

*Antzara yokoan aritzea*, alegia, neska-mutil bikotea larru jokoan ibiltzea. Ez al zaizue faltako aurtengo pestetan!:

*-Non ote die Karlos ta Maria?*

*-Antzara yokoan aiko dittok noski!*

**argi lo**. *Bart eztit argi lo aundirik egin!* Alegia, goiz esnatu, egunargitu eta gero lotan ez segitu. Oi-oi-oi!! Zenbat halako!

**asteraun**. "Cualquier día de labor" Azpirotzen ustez. Kasu honetan beraz, libre duzue hitz honekin gehiegi ez gogoratzeko.

"Gaztelu arrantzan zebilen asteraun gorrin Gorriztarango errekan, Txantrean aurren; Joxe Korreoanak esan zion: -Adiós capitalista!

GAZTELUK: -Adiós millonario de otro!". (Astaitz 91)

"Igandetik igandera izaten zen bandoa baina batzutan asteraunean ere jotzen zuen herriko leku jakin batzutan". (Astaitz 93-1)

**atari**. Honela zioen Azpirotzek 1963an: "Exterior próximo de un lugar. Etxeatari, "la calle de junto a casa". *Elizatari*, "calle de junto a la iglesia"".

Hori bera adierazten bide du haserraldi batean aditutako esaldi honek:

*"Aterako gaituk atarira gauza baldin bahaiz!"* (Astaitz 82)

Baina Leitzen, antza denez, ataria kalea ere bada, eta Joxe *atarin dabil* esaten badizute "etxetik kanpo" dabilela uler zenezake, baina ez beti juxtu-juxtu etxaurrean dabilela. Begira: *"Gorritira jo dot berri gehiagoren bila eta suertea izandu dot. Atarian aurrena ikusi doten bati galdetu diot ittotako honen berri eta hara zer dion 85 urteko Martin Baldak"* (Astaitz 96-3)

**auntz**. Mozkor adiera bromazalea, jergakoa: *"Hi bao auntze bi!"* (Zikilintres 83)
Pestetan Leitzen ardi hainbat auntz. Ikus gorotz, mando, zepel.

**aurrelari, atzelari**. Ingurutxoan, aurreneko eta atzeneko dantzariak dira, hurrenez hurren, aurrelaria eta atzelaria. Aurrelari ederra ni ttikitan!: *"...bere oroitzean , "zortzikoa" azkeneko dantzatu zuten aurrelaria eta atzelaria (gaur puntakoak esaten dugunak) Bautista Arrayago eta Isidro Pellejero izan omen ziren"*. (Xixifo 87)
*"[Miel Gaztelu] Plaza gizona zen. Yendartekoa. Pestetako ezkonduen ingurutxoan aurrelari izaten zen"*. (Astaitz 91)

**balantziku**. "El *zortziko* del *Ingurutxo* de Leiza" dio Azpirotzek. Bakarrik gizonezkoek dantzatzen dute: sokan dagoen mutil-sailak behin eta puntakoek bitan bai, gutxienez. Ezin seguru esan, niri ez baitzait dantzatzea tokatzen. Por tzierto, bukaerakoan mutilak neskari egiten dion *erreberentzie* oso galanta izaten da. Adiskide batek esan dit berak *billantziko* esaten diola. Tolatxeneko Kandidok beste aldaera bat dakarkigu, Sasiziztulariaren kronika batean: *"Ingurutxoa dantzatzekoan, belauntzikoa ittekoan, askotan mutille neskan aurrea allatu beño len asten zatea"* (Sasiziztulari 90)

**berdentzabart**. "Anteanoche" Azpirotzek esan, alegia, oso hitz egokia pasa den gauaren aurreko gauaz mintzatzeko... Deuseren gogoa badaukagu behintzat! Bestek berdontzabart eman digu, hurrengo adibidean azaltzen den aldaera bera hain xuxen:
*"Motiko kozkorrak berdontzabart gabeko eskolatik atera eta gaztain erre yatea egin zuten etxean egindako pitarra leher edanez"*. (Astaitz 94-3)

**besalaien ibilli, yoan, etorri...** Astaitzagako Mikelak esaera honen berri eman digu:
1) Uztartuta dauden behiak tematu eta elkarren kontra bulka hasten direnean *besalaien dabiltzela* esaten da.
2) Esanera zabalduz, neska-mutil bikotea estu-estu ta goxo-goxo doala ikustean: *Ara! Orroko bi oik Itturrizar alde besalaien.*

**bizkotxa**. Arraultzedun înatilleî goxoa. Beste batzuk bizkotxada esaten diote. Karmen Lasarte Abadebordakoak, Karrape irratian esan zuenez, garai bateko pestetan postretako jartzen zuten. Hona zein izaten zen menua:
*Batzutan izaten tzen garbantzue. Eta beste batzutan, berriz, ardie iltzen tzen eta arren puskekin salda ta fideo zopa. Gero, ardikie, gisatu edo pâtu, eta gero ollaskoa. Ta "biskotxada"-edo esaten zitzion, oaiñ natille edo eztakit ze esaten dioan, prostetako oixe.*

**boladu**. Azukrez eta arraultz zuringoz egindako ore arroa izaten zen, lehengo pestetan usu jaten zena: *"[Pestetan] Gizakiei ematen zitzioan piperropila ardoarekin eta emakumeei boladuk urekin. Boladuak izaten ziren lehenago holako aiergunetarako. Orain ez da ikusten... (harro-harroak, soskorraren antzekoak, zuri-zuriak ziren. Basora bota urari eta urtzen zen. Goxoa izaten zen"*. (Mikela 83)
*"Goan dauket Eatsunen boladue nola ematten ziguen. (...) Gero txokolatea ekartzen ziguen boladukin, txokolatea ta baso aundi bet ur, boladukin; aurrek baigiñen gu oaindik"* (Sasiziztulari 90)

**burrundako**. "Estrépito, fragor" Azpirotzen esanetan.
*Burrundako earrak plazan txupinazokoan!*

**burruse**. Horra pestetako jantzi ofizialaren izenik jatorrena. Jantzi zaitez!
"Sarako burruse saltzailea hemen da igandero". (Astaitz 94-3)

**desgarai**. *"Aurrek desgaraien etxeratzea, ez dago ongi"* zioen Azpirotzek duela 35 urte; baina gaurko pestetan haurrek hobe dute *desgaraien etxeratzea*, garaien iritsita gurasorik ez aurkitzea baino.

**despeide eman**. Bikote erlazioa moztu, bizkarra eman, popatik hartzera bidali. Egunok egokiak izaten dira oso lagunari *despeide* eman eta beste batekin hasteko:
*"Hainbeste yenden aurren alajainkoa, despeide eman neskatxek mutillei!"* (Perurena 1996: 108)

**eltzeitsu**. Nahiko lan ematen die neskatxei beren eltzeitsuak ongi gordetzeak. Izan ere, hego gau txorook!
*"Igande atsaldea zen. Luisa eta Maria ixpillun aurren denbora aldie pasatute, bekain bizar sobranteak aterata, ongi pintatuta abitu dire herri aldera. Amak atzetik oihue: Zeren eltzeitsuri eutsi gero!"* (Astaitz 91)

**enpo.** Hiru esaera polit bildu zituen Azpirotzek: *Enpoa egin*, "asetu". *Enpoa yan*, "asetu arte jan". Eta *enpoa edan*, "asetu arte edan".

Ongi pasa nahi izanez gero, nahi beste aditz itsatsi enpoa horri... Baina ez, noski, esan beharrekoa egin aurretik!

**erakustuna**. Irakasle edo erakuslea izaten da: eskolan, musikan, deportetan... Plazako aizkolariak sona haundikoak izaten dira baina erakustunak ez dira gero nolanahikoak izaten: Patxi Astibia, Gabriel Saralegi...

**estarta**. Honela dio Azpirotzek hitz zahar honen esanahiaz: "Camino poco transitado que discurre entre paredes y zarzales". Pareta artekoa izaten da, bai, Leitzeko *Ormarteko estarta* toponimoa lekuko.

Areson, berriz, *estrata* esan izan digute, eta honela azaldu: *"gurdie bakarra kabitzen den bidea"* edo *"bi etxen arten diena"*.

Zergatik ote dira hain estu eta ilunak abuztuko estartak?

**etxapero**. Edo Etxafero... fffffffuit! pum!

**ezkille**. Gaur apalduxea, baina isiltzeraino gabe. Garai batean eguneroko erlojua bera baino askoz gehiago izaten zen, pestegun nahiz asteraun. Hiru testuok horren lekuko: *"El "ingurutxo", con txistu y atabal, îtxistua eta danborraî, habría el baile vespertino del "zaldunita" o domingo de carnaval [de Areso], que finalizaba al tañido del "abemari ezkille" o toque de oración"* (Irigoien 1986: 57)

*"Garai hartan ezkilletorren altabozak ziren eta meza, arrosarioa, sermobea eta edozein elizkizun herri guzitik entzuten zen"*. (Astaitz 90-1)

*"[Sankristabek] Goizeko seiterdietan yotzen zuen argiezkille. Ilunabarrean amaiezkille. Meza nagusie yotzen zuen alde batera, bezperak bestera eta prozesioa bestera. Agoniokoa, hillezkillek, ezkille botatzea, mezerdiko dandak, elizekoak emattekoan, errezkille, kandela..."* (Astaitz 92)

**goale**. "Ganas de vomitarî dio Azpirotzek. Ikus, halaber, egunotan usu izaten diren *beale, itoale, loale*... Denak ere ikastekoak baina ez ikustekoak.

**gautiro**. Hitz xelebre samarra: *juergarako gautiro earra diu gaur!* esaten da. Azpirotzek ez du biltzen; bai, ordea, *goizgiro, atsaldegiro, eungiro, negugiro, udagiro*...

**gorotz**. Areson *ongarri* esaten zaio alorren eta baratzen aberasgarri erabiltzen den gai organikoari. Baina horretaz landa, Azpirotzek beste bi adiera aurkitu zituen: "1) Haragán. 2) Borrachera". Azken adiera honetarako, Leitzen gorotz ez eze *auntz* eta *zepel* ere erabil daitezke. Eta *gorotz* izenetik *goroztu* aditza: "1) Estercolar las tierras, los sembrados. 2) Emborracharse". Ikus *mando, zepeldu*.

**inguruarte**. Gaur gutxik esaten diote horrela *Kakazelai* ospetsu eta pestetan kanping itoa denari. Joxemiel Elosegik, ordea, bere mapan ez dakar *Inguruarte* besterik. Hona zer zioen Azpirotzek *Inguruarte* izenaz 1967. urtean:

"Ferial. No se emplea actualmente. Continúa llamándose así un campo donde en tiempos tenía lugar el ferial".

**intzek artu**. Sasiziztularik 1991n argitaratu zuenez, *"Intzek artu zetit nik!"* esaten omen zuen Angel Alduntzin zenak goizeko "ttanttak" hartu ondoren. Gure artean hamaikatxo izaten dira intzek, hego nahiz aintziar, urte osoan hartzen dituztenak.

**iñarisatsa**. "Escobón de brezo" Azpirotzen hitzetan esateko. Beste batzuk añar-isatsa esaten diote. Orain gure Gustabo makina moderno batekin ibiltzen zaigu herria txukuntzen, eta halere nahiko lan izaten du auntz-gorotzak gainetik ezin kenduz; baina garai batean –eta ez oso aspaldi gainera– *iñarrisatsa* ezinbestekoa izaten zen zoldarik haundiena kendu nahi baldin bazen.

**itziki**. Erdarazko "trago" adierazteko esaten zen garai batean, baina nekazari den edo izandako jendeak baino ez du gogoan. Eta ez al dugu bada orain halakoren premiarik, inoiz bainoago?

*Artzazo itziki beten!* esan zigun Maria Jesus Gogorzak, kafe hutsa hozten ari zitzaigula ikusita.

*"Razionamentuko kartillekin olioa eta azukrea erosi ditto. Itziki batean edateko diñe olio eman dioa"*. (Astaitz 94-3)

Ikus Beiñes bertsolariak bere iloba Tomas Baruni kantatua (Perurena 1996: 184-85):

*"Ankatik urgun agola...*
*Maiz dok aitzakie,*
*Askotan artuko baño*
*Bakan itzikie.*
*Gure ofizio au*
*Bestek etzakie*
*Polit bet kanta zeidek*
*Illoba txikie."*

**kantabrie**. Bittorio Lizarragak esan digunez, oraindik ere Leitzen zenbaitek honela esaten dio koñakari. Beharbada aspaldi haundian horregatik esaten zioten euskarari *linguae Cantabricae*.

**kargudun**. "Autoridad" Azpirotzek 1963an idatzi zuenez. Pestetan ere kargudunak inportante izaten dira, pesta bezperako txupinazokoan, San Tiburtzio eguneko mezakoan, ezpatadantzarien aurrean... Batzuk herriko kargudun ez eze herriarentzako karga ere izan izandu dira.

**karrape**. Azpirotzek "cubiertos del Ayuntamiento de Leiza" definizioa eman zuen. Mitxelenaren hiztegiak besteak beste misteriozko hitz honen sustraia agerian utzi digu. *Karrerape*-tik heldu da, eta hau, era berean, karrera-tik, alegia, "portala" edo "teilatuari eusten dion habe etzana".

Honela bildu zion Patxi Perurenak Barungo Maria Jesusi:

*"Ezkontzeko pruebako aurreko iandeÈn dantzaldie geio karrapen in ta illunbiste galdu etxea allatu baño leen".*

**kaskail**. Azpirotzek 1963an "pendenciero, lioso" eta 1967an **kaskallu** "de temperamento bruto" jaso zituen. Alegia, hitz bera eta adiera bi "temoso" eta "astakirten" esanahiekin. Ez da oso hitz polita, baina kaskailuok ere geren eskubideak ditugu!

**kaskaildu**. Aurrekoaren senide:

"Destrozar, romper. *Goizaldeko egoaizeak arto guzik kaskaildu ditto*" zioen Azpirotzek. Artxikonean beste adiera batean eman digute:

*"Aiton-amondu*, xahartu, kaxkartu. *Attuna kaxkaildu xamar dao".*

**kaskailtze**. Hirukoaren azkena: "Destrozo, daño".

Ea aurtengo pestetan ez den *kaskaildu* hutsagatik *kaskailtze* latza eragiten duen inongo *kaskallurik*. Ikus purruskatu.

**kolike in**. Zerbaitek gaitz egin eta goitikoka egiteari esaten zaio. Ez du, ordea, *mandoa* bota esaneraren kutsu trufazkorik. *Mandoa*, gehiegi edatearen ondorioz *botatzen* da.

*"Beiñ goan dauket gu ara yoan yai atsalde baten geize bille, ta Joanito, bertako semea (...) nola erori zen, da kolike inde gaizki zegoala ta, nola eraman zuen Tolosara".* (Arbolak 94)

**kolle**. Koillatutako urari esaten zaio:

*"Negue zen, koillate ikaragarrie, ta kolle baño otzagoa zen bera, euzkitten e naittanaiez arropaz yosie ibilli bear izaten zun"* (Perurena 1996: 97)

Kolle edo kolla omen da, halaber, Larraun eta Basaburuko zenbait herritan. Goizuetan, berriz, orma, baina Patxi Perurenak bere jaioterrian aditutako esaera hauek adierazi dizkit: *"Mukikollak kentzen yakin ezta!"* eta *"Ibili, ibilli, kenduko izkitzut nik mukillak!"*

Kanpotarra bazara Leitzen kafea kollekin eskatzea komeni zaizu, erantzun-begiratu jelatua jaso nahi ez baduzu.

**komon**. ìRetreteî Azpirotzek bildu 1967an.

Nahiz eta hori izan aldaera komunena, Leitzen ez da arruntean *komun* esaten, *komon* baizik: inglesez ere, *komon baby!*

**kunplikatilluk egin**. Gizabidezko diplomazia konbentzionala izaten da, emakumeen arte zailduenetako bat. Doluminak emateari ere esan dakioke. Nolanahi ere, pestetan aspaldiko lagun eta ezagunenganako *kunplikatilluk egin* beharko ditugu. *Etxez etxe kunplikatilluk ittea yoan da, zepelduxe iritsi naiz etxea.*

**lanpekatu**. 1967an Azpirotzek honela definitu zuen hitz hau: "Dominado por el trabajo. Se dice del que nunca hace los trabajos a tiempo. *Au bizimodu tristea! Beti lanpekatue bizi bearra!*". Beraz, orain ere lehengo lepotik burua.

**larramillu**. Hala egiten omen zuen Angel Alduntzinek: *"Goizen diana yoko zien, ta, larramillu biltzera edo, onto biltzera edo, yoane uen..."* (Sasiziztulari 91)
Pestetakoa, jakina, larramillu biltzeko garai ona izaten da. Eta ez alperrik, asko izanen baitira gauez *antximelo ure* hartuta egunez *larramillu ure* hartu beharko dutenak.

**larrugorritu**. "Desnudar. Desnudarse" Azpirotzek 1963an. Hau da, zuk zere buruarekin nahiz beste batekin egin dezakezuna, *agoztuko gau sargori zakar otan.*

**lauankan**. "A cuatro patas" edo "a galope" Azpirotzen esanetan.
*"Paulinaren belatsoan behiko atakan sartu nintzen, lauhankan io nintzen belatsoa gora eta goiko atakan atera eta sasi kontran elorrik eta antximeloak eta denak bazterrera utzi eta aurrera".* (Astaitz 97-1)
Pestetan *lauankan* dabiltzan bi hankako guziak bilduko bagenitu!

**lege**. "Imitación. *Legea ein*, imitar gestos, muecas, tono de voz".

**legea egin**. "Imitar gestos, maneras de andar, hablar, cantar".
*"Miel Joakin bere lagunekin jolasean ari zela neska bat etorri zen. Miel Joakinek "ogrrrr" (...) egin eta gonapetik eskua sartzeko legea egin zion".* (Astaitz 81)
Egizu pestegunetako legea: dena libre!

**lepatxurita yoan**. Hiztegi erotikoa izenekoaren egile Ramon Etxezarretak dioenez, Leitzen zenbait zelebrek Osasuna ekustera esaten zuten putatara zihoazela ez esateagatik.
Horrek baino esaera jatorragoa dirudi, ordea, beste honek:
*Andregaiek despeide emanda, lepatxurita yoan bearkoík etsi-etsin!*
*Lepatxurie* erdaraz ez da "zorra", "fuina" edo "garduña" baizik. Eta orain, bazoazke.

**lo galdu**. Sueño retrasado. *Lo galdua nago* "estoy con sueño retrasado".

**lo zartu**. "Sueño retrasado. *Lo zartua nago*".
Biak ala biak Azpirotzek txukun jasoak.
Ai! Zenbat lozar galdu ote da gure pestaotan!

**mando**. "Borrachera. *Mandoa arrapatu*, emborracharse. *Mandoa bota*, devolver por la borrachera".
Zertarako deus erantsi Azpirotzek esandakoari?
*Ikus auntz, gorotz, zepel.*

**manetu**. Besteak beste, *eltzea manetu* esaneran azaltzen da. Hona Azpirotzek jasoa:
"Arreglar el cocido con los últimos detalles de la sal, aceite".
"Itziki batean edateko diñe olio eman dioa. Ez ditto horrekin eltze asko manetuko" (Astaitz 94-3). Ongi manetu itzazue eltzeak, mesedez, ni pestarle ailegatzerako.

**mari bandera**. Azpirozten esanetan, "mujer ligera, de no muy buena fama. Tiene más sentido peyorativo que *mari-mutil*". Adjetibo horrek zaharkituaren kutsua dauka, baina, hala ere, lastima litzateke aurten maribanderarik ez izatea.

**mengeldu**. Azpirotzek bitara hartu zuen:
1) "Debilitarse, achocharse".
2) "Cogerse media borrachera. *Mengelduik atera zien ostatutik*".

**metittu**. Leitzen garbia da *sartu / metittu* bereizketa:
Sartu ekintza fisikoa da, *etxen sartu*, biden sartu etc.
*Metittu*, berriz, batek beste norbait hitzez eraso, zirikatu, eraginarazi:
*Inixio Austiñekin metittu de ta earrak yaso ditto bueltan!*

**mizke**. "Vicio" Azpirotzen hiztegian. Hitz interesgarria. *Mihizke*tik?

**mozkortzopa**. Honela esan zigun Kandido Tolatxenekoak garai bateko pesta egitarauaz:
*"Pesta irugarren gaben, banda musike geren kontu artu Tolosakoa ta, gau guzie juerga! Larogei lagun eo bagiñen, denak mutillek e! Emakumeik ez e! Banda oi artu te istruzioa yotzen goizeko irutan, mozkortzopa yan tzean, Peustenen, zopa, batzuri zopa ("mozkor zopa" esaten giñion). Da, plazan bera eldu giñela, zea: tara ta, ta-ta-ta-ta... Katxondeoan, baño, ni anaiek, istruzioan eldu ziela in tzun galtzak kendu, Klaudiok, emen, Joxemari amerikanoan etxe onen jardiñeko ortan da, artu galtzak eta bÛtatzeko itxure in tzun,*

*onontza, onozko aldea ta; bazen emen ìAlolioî esaten tziona, Bernardino Bengoetxea, Jose Inazion da osaba; Jose Inazio, Lazarona ta Jexux ta, nola die? Ark e ze in tzittun? artu te bota, ta Klaudiok ez bota, itxure in bai ta, galtzik gabe geldittu zen. Ta Roberto Martxenekoa, gañetik pasatu ta galtzak artu t'eman tzezkion".*

**murriztu**. Berriz ere Azpirotzek:

1) "Escasear, agotar. *Dirue murriztuko zaigu laister, ola gastatzen ba-deu*".

2) "Dejar de dar algo. *Goikoetxekoak esnea emattetik murriztu zaizkigu*".

Txarra al zen hitz honen erabilera hobeki ezagutzea? Hitzak murrizten ari zaizkigu oharkabean.

**ostatu eman**. Astaitzagako Mikelak gaztetako oroitzapenak arrotuz zera esan digu:

*"Ordun eskazale asko ibiltzen tzen itxitan, ta denai ematten tzitzioan ostatue, gaberako lekue".*

Aurten, nonbait, Saharako pestarleei ostatu eman behar diezue. Zorionak!

**otso dantza**. Ze dantza ote zen hain izen polita zuen hura?

"Pizkor ikaragarrie izan bear zun neskazarra. Auzoko mutillek: Abadebordakoak, Domingobordakoak, Barrenekoak, Portolonak eta... otso dantzan ibiltzen emen zie Esalakorteko belatsoan, da denak artute aiden erabiltzen emen zittun". (Arbolak 94)

**ottera**. Honela jaso zuen Azpirotzek 1967an: "Var de *oituera.* Costumbre".

"Alkate ta konzejalak, bai al daukate eskubiderik leengo ottera zarrak ola baztertzeko ta nai duena egiteko?" (Artxikonekoak 85)

*"Neskan bat edo beste izan zien da, ak zeuden lekure; ordun oittera aundie baitzen neskatxengana yoateko."* (Arbolak 94)

*"Lengo emengo etxekoandrea zen Fermina (...), ta ark emen zun oittera, aren egune allatu arte iñori ez uztekoa geize gañera iotzen."* (Arbolak 94)

*"Trebea zen sar gañen ibiltzeko, baño oittera aundik etzun, da askotan lurrera erortzen zezkitzion. "Motell, denak botatzen ai aiz" guk beittik".* (Arbolak 94)

**pandillaje**. Izate gaizto edo zakarreko *pandilla*, lagun taldea.

Azpirotzek *yendalle* jaso zuen: "Gente (sentido despectivo, peyorativo); gentuza".

Bata zein bestea sobra pesta guzietan.

**pasakari**. Pasadizo, gertaera. Jesus! Zenbat pasakari kontatuko zenituzkeen zuk, pestazale zahar horrek!

**peraka**. Azpirotzek bitara ulertu zuen hitz hau:

1) "Trapo que impide que las ovejas queden cargadas en tiempo de celo".

Bai, *ardi perakatue* esaten zaio zapi hori daramanari. Bestalde, Artxikoneko Maria Jesusek esan digunez, garai batean emakumezko batek azpildura agerian zeramanean peraka erakusten ari ote zen ohar egiten zitzaion:

*Ze zabiltze peraka zintzilik dozola!!*

Oso oker ez banago, oraindik orain neska dantzarien pikardia izaten da hori, alegia, azpildura ("peraka") erakustearena.

2) "Calificativo despectivo. *Ori peraka!*" dio Azpirotzek berriz ere.

Eta Tomas Baruni omenaldi xume baina zinezkoa egin bidenabar, gogora dezagun asmo gaitz horrekintxe azaltzen dela peraka adjetiboa honako esaldi honetan:

*"Illobatxikie baitzun [Beiñes bertsolariak] emen ibiltzen den Tomas "Barun" peraka zar ori!"* (Perurena 1996: 185)

**perdes**. Hitz hau bitan azaldu zuen Azpirotzek. 1963an, "paso indeciso, con titubeos, propio sobre todo de borrachos"; eta 1967an, "paso indeciso del semiinconsciente por mareo, borrachera". Bigarren definizioa dramatikoagoa da, baina probatuak badaki zeinen ongi esana dagoen. Gainera, *perdeska* aditzondoa ere jaso zuen: "tambaleándose".

Ikus *aldaro, aldaroka.*

**perdetsa**. Nondik heldu ote da hitz hau? Aurrekoaren senide dirudi, eta beharbada Azkuek Behe Nafarroan jasotako pherdats "verduzco" hitzarekiko ahaidezkoan dago. Hona Astaitzek Plazaola aldizkarira ekarritako adibidea:

*"Fermin perdetsa da. Lehen etxetik ateratzen etzena zen baño gero herrigizon egin zuten eta ordun axolkabetu zen".* (Astaitz 94-3)

**perratu**. Azpirotzek "herrar" adiera eman zion. Eta hala da bai.
Baina nekazarien arteko hizkuntzaren bihurrikeria horietako batek esanahi berria asmatu zion: "ernaldu, haur izateko utzi, bete".
*"...etxen emeretzi urteko neskatxe arrapatu zunen, seittun perratu!"*. (Perurena 1996: 48)
Urrezko perra balitz, sikira!
Ikus *txertoa eman*.

**pestakizun**. Batuaz ospakizun esaten den horren kide-kidea bide da Leitzeko hau. Kontutan har bedi hurrengoa Joxemari Azpirotz zenari berari jasotako lekukoa dela: *"Ta, gogoan dauket beti: omenaldiko pestakizun ori bukatu giñunen, Don Ramonek artu niñun besotik, eta ez bat eta ez beste, automobill batera eraman niñun..."* (Sasiziztulari 90)

**pestarle**. Pestetako gonbidatua.
*"Kanpotik etorritako pestarleekin, emengo ottera guziak aurretik jakiñen jarrita"*. (Artxikonekoak 85).

**pinpirin**. "Bonito, airoso, pulcro", ar nahiz eme, beraz, itzulin zuen Azpirotzek.
Eta, jarraian, *pinpirindu*: "arreglarse, acicalarse".

**piperropil**. Gorago aipatu dugun boladu izeneko gozoarekin batera, piperropille izaten zen pestakizunetako protagonista xaloenetakoa, hamaika pasakari eta adiskidantza eragindakoa.
*"Lehenago pesta bezperan plazara etortzen ziren piperropil saltzaileak eta barkileroak, beren barkila-potea bizkarrean hartuta"*. (Mikela 83)
*"Mutillek goizetan piperropill biltzera ateratzen ziren etxeetara, sailka edo bakoitza bere borralde"*. (Mikela 83)
*"Hok biltzea pozik etortzen ittunen mutillek; piperropillen surrin hementxe aritzen hittunen neskatxek kortejatzen"*. (Mikela 96)

**potarri**. "(De *pote arri*). Piedra de donde se botaba la pelota para sacar en el juego de pelota llamado largo", Azpirotzen esanetan. Oso oker ez banago, oraindik Etxetxuriko atarian dagoen harri koadro leun, memoria luzeko hura bera da. Bestek sakarri esaten dio. Omenaldia egin beharko litzaioke.

**prestaketa**. "Preparativos. *Pestetako prestaketak eitten asi gera*".
Azpirotzek gera dio, giputzek bezala. Pestetara etortzen diren sailak izanen zituen gogoan... Portzierto: zertan dira zuen prestaketak? proaldi "prueba deportiva" eta proarri "(De proba arri). Piedra de pruebas, apuestas, de arrastre", Azpirotzek hurrenez hurren jasoak.
Probatu aditza eta proba izena beraz, gaur kirola deitzen dugunarekin estu lotuak zeuden garai batean.

**purruskatu**. Azpirotzek "deshacer, destrozar" zentzuan jaso zuen. Zenbat errazago, gure ixkin honetan, *purruskatzalle* eta *sesioille* izatea eraikitzaile izatea baino.

**sarkoi**. Arditan, konparaziora, berea ez den belatsora sartzeko joera duenari esaten zaio.
Arditaz hori esaten bada, ez ote du balio *sarkoi* hitz horrek berorrek plazara ateratzen dituzten xexenko eta miatxo gaizto barrerazaleentzat?

**sesio**. "disputa, discusión" eta **sesioille** "pendenciero" hitz zaharrak beharbada ez dituzue ezagutuko. Gaur egun *putaseme* izaten ohi da bigarrenaren ordaina.

**sokan yarri**. *"Yarri giñen denak sokan, ta ingurutxoa yoaz sartu giñen Minttorlan"*. (Sasiziztulari 91)
Beraz, kasu egin Sorori sokan (hau da, errenkoan, ilaran) yartzeko eskatzen dizuenean.

**taketu**. Azpirotzen hitzetan, "reforzar, sujetar con uñas el poste metido en tierra". Pestaurrean hortxe aritzen dira urtero Udaleko langileak eta hainbat boluntario fin, *zutikaiek taketu* eta langak behar bezala antolatzen, bestetan beste.

**ttunttune**. Ziztulariaren danborra. *"Gure Klaudio zena ta Angel beti asarre, baño beti aiskide izate ittuen, ta, beiñ, (...) ze in tzaio Angeleri? ttunttune yoan malda guzik bera..."* (Sasiziztulari 90) *"Ttunttunari larru berrie, estutzeko sokak, eta kristo guzik, denak berak yartzen zezkioan"*. (Sasiziztulari 91)

**txakarranko**. Ezpatadantzaren atal bat? Entzun Kandido Tolatxenekoaren oharra: *"Beño, alare, oaingoak obeki dantzatzen dikea. Oaiñ gauz bet itten dok gaizki: txakarrankoan bukaera. Ikaragarri mantso itten dok bukaera ori"*. (Sasiziztulari 90)

**txaranbelatu**. "Marearse. *Ardo piske bat aski izaten do dena txaranbelatzeko*". Azpirotzek alkoholarekin eta alkoholismoarekin zerikusi duten hitz mordoska bildu zituela ikusi dugu. Ikus beherago *zerbel.*

**txertoa eman**. Gorago ikusi dugun perratu horren esanahi bera dauka, alegia, "ernaldu, izorratu, haur izateko utzi".

Patxi Perurenak bildutako adibidean gordina bezain garbia da hitz irudi horren esanahia (1996: 59):

*"...Urbitako neska orreri txertoa eman zion Minttorla orrek..."*

Metaforaren bidez egitatearen garratza goxatuko duelakoan, hiztunak esaera bitxi askoak sortzen ditu, *"zaagi ardoa zulatu"* bezalakoak (Perurena 1996: 132).

Zenbat *perra, txerto* eta *zulatu* ote dira San Tiburtzioren gogoenean?

**txikoan artu**. Patxi Peurenak esana dakit hitz honek adierazi nahi duena:

"Batek bestea bizkarrean hartu, eskuak lepotik eta hankak gerrira bilduak dituela (a borriquitos)".

Umeek askotan elkar *txikoan artu.*

Pestetan berriz, aitak seme-alaba ankalepoka hartzen ohi du umeak plazan gertatzen dena ikusi ahal dezan.

Goizuetan bata zein bestea iztapetxikoka edo astapitxitxuka artu esaten omen da.

**txiripe**. Gaur egun dejada esaten zaio, baina gure zaharrek *txiripe* esaten omen zioten pilotaren arte ikusgarri eta zailenetakoa den horri.

**txurrupe**. "Sorbo pequeño. *Txurrupetu,* sorber un poquito", Azpirotzen hitzetan.

Ikus *zurrupe.*

**ultzi**. Garai batean *eultzi* esaten zitzaion larrainean jotzeko prestatzen zen gari edo garagar pilari. Hortik herriak *ultzie yo* aditzaren esanahi metaforikoa sortu zuen, hau da, "liskarra, burrukaldia" ("reñir, discutir" dio Azpirotzek). Lastima da behiala hain hitz arrunta zena galdu beharra:

*"Tiatzeio ziztue, ta burun gañetik pastu zetzion. Ure eskapada! Gero bai arrapature atzetik! Botatzen do azpire, ure ultzie bik!"* (Sasiziztulari 91)

*"Asi emen dittok ultzin de, leitzarrak aixe mendeatzen makillekin bestek!"*

(Perurena 1996: 101)

Artxikonean esan didatenez, ultzie "haur arroskoek zilipurdika eta zalaparta haundiz egiten duten borrokaldia" ere izaten omen da.

**uzkalaldi** eta **uzkaldi**. "Paliza. *Uzkaldi ederra eman dio*", hau ere Azpirotzek jasoa.

Ea ez den uzkaldirik gertatzen!

**xalotu**. "(De *xalo,* amable, afable). Hacerse amable, afable", Azpirotzen hiztegian.

Zenbat murru eta zakartzio *xalotzen* ote dira pestetan?

Txalo bero bat mereziko lukete, bai, xalo atxaure horrek hain gutxi iraunen ez balie.

**xaplanean atera**. Patxi Perurena poeta, etnologo eta aizkolariari zor diot aizkora probatan aditu (eta ikus) dezakezun hitz honen azalpen txehea:

"Atera, joan, jo, sartu aizkora, sega, aitzurra, harrimailua, edo beste edozein tresna (jeneralean aho zorrotzekoa). Kolpea ematekoan huts eginda ertzetik atera, joan, jo, sartu. Hitz hori aditu eta ikusi egiten dut aldi berean; batez ere, aizkoraren ziplanekoa bizitua eta behin baino gehiagotan jasana bainaiz neure haragitan. Euskal hitzak bizitu eta gero barrendik sumatu dituenak atsegin ikaragarri horixe dizu".

Goizuetako aldaera eta, beraz, Perurenak bizitua *ziplanean* omen da.

Azkuek hitz horrekin lotura estua dukeen *zipla* bildu zuen: "indirecta, pulla".

Ikus *ziplatu.*

**xaxa**. Ohar hau Migeliko Zestauk egina da:

*"Begizak: xaxa dok marka, arrastoa. Garai batean, pilota partiduetako tantoak eramateko, arrasto bat egiten huen. Eta arrasto horiek egiten zituena huen xaxari edo xaxaki".* (Bixente 85)

Plazako pilota partiduetan ez da berreskuratu zaharra xaxa eta, beraz, xaxariaren ottera kurioso hori.

**yendalle**. Azpirotzek dioenez, "gente (sentido despectivo, peyorativo); gentuza".

*Yendallerekin* ez eze erne *yendaje* eta *pandillajekin* ere.

**yorrada**. Azpirotzek bi ulermodu aurkitu zizkion hitz honi:

1) "Quebranto, agotamiento, cansancio, consecuencia de un esfuerzo físico grande. *Ze yorrada ez dute artu gaur pillotarik!*"

2) "Sobresalto, disgusto".

Azken adiera honek, norbaiten heriotzak senide edo adiskide bati erasandako *yorrada* gogorazten digu.

Ikus zurra.

**yuste**. "Libertsioa, dema... Ikus latineko iuxta: torneo, lehia" Patxi Perurenak dioenez.

Hegoa baino zaharragoa hitza!

Martin Agerre piztitzar ederra omen zen, eta honela esan omen zuen bere adiskideekin batera istilu larriak sortu zituen batean:

"yuste earra yarri diu yendentzat plazan, ta oaiñ gu izurratuk kartzelan!"

(Perurena 1996: 486)

**zepeldu**. "Emborracharse. *Zepelaldi*, borrachera. *Zepel*, borrachera".

Harrigarria da alkoholarekin lotutako zenbat hitz bildu zituen Azpirotzek! Hurrengo lekukotza Joan Zabaleta Martiertzenekoak eman da:

*"Zepelduxe zen Jose edo ori, ta bertsoatan asi zen da bastante moldatzen zittun da denak parrez geunden..."*

Hemendik, beraz, gaurko zepelin, zepeliñe eta abarrak. Ikus gorotz, goroztu, auntz, mando.

**zerbel**. "Alegrillo por la bebida", dio Azpirotzek.

Etimologia: *zelebretu*-tik?

**zerbeldu**. Azpirotzek bi adiera aurkitu zituen:

1) "Descolorarse la planta sin llegar a agostarse del todo. zimeldu, marchitarse, agostarse del todo. *Landare zerbeldua itsasten da; zimeldue berriz, ez*".

2) "*Zerbeldu*, alegrarse a causa de la bebida".

Ikus txaranbelatu.

**ziplatu**. *"Gastar dinero. Diru guzia ziplatu du"*. Azpirotzek jasotakoa da.

Aurten nahiko lan zenbaiten dirupilla guziak ziplatu ahal izateko.

Bestalde: ez ote du hitz honek gorago aipatu ditugun *xaplanean* edo *ziplanean atera* eta *zipla* horiekin ikustekorik?

**zurra**. "Agotamiento. *Zurraldi*, agotamiento. *Zurretu* (sic), agotarse físicamente. Domar. Basolana bezelakorik ez da yendea zurratzeko", Azpirotzen ustetan.

Eta arrazoi zuen. Basolanean, dantzagitean eta zigarroketan luzaz zurratutakoaren piurari begiratzea besterik ez duzu.

Ikus *yorrada*.

**zurrupe**. "Sorbo. *Zurrupetu*, sorber". Azpirotzek berak, honen *txurrupe* txikigarria jaso zuen.

Artxikonean, berriz, *urrupe* esan digute, Mikel Laboak kantatzen duen *"urrup edo klik"* sonatu hura gogoratzen duena.

*Zurrupe* edo *zurrutetik* etorriko da, noski, *zurrutero* hitz sasikoa.

* * *

Eskerrak eman nahi dizkiet Leitzan nahiz Areson lantegi honetarako laguntza eman didaten guziei, eta bereziki hurrengo hauei:

Leitzan: Juan Mari Barriola, Maria Jesus Gogorza, Mikela Labayen, Karmen Lasarte, Bittorio Lizarraga, Pontxio Irurtia, Patxi Perurena, Itziar Sagastibeltza eta Joan Zabaleta Martiertzenekoa.

Areson: Pilar Arraiago eta Migel Barandarain.

Besterik gabe, zurrupe on denoi!!

# BIBLIOGRAFIA


**1. Hizegiak:**

Azpiroz, J.M.:

" ; 1963-64, "Azkue jaunaren iztegia osatzeko Naparroako Leitze-n bildutako itz-bilduma", *Euskera* VIII-IX, 317-335.

" ; 1967, "Azkue jaunaren iztegia osatzeko, Naparroako Leitze-n bildutako itz-bilduma", *Euskera* XII, 5-24.

" ; 1981, "Azkue hiztegiari gehituz", *Euskera* XXVI (2.aldia), 239-243.

Azkue, R.M™; 1984 [1905-6], *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Euskaltzaindia.

Mitxelena, K; 1987, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbao.

**2. *Plazaola* aldizkaria:**

Artxikonekoak: "Udal etxeko agintariei", *Plazaola* 1985.

Astaitz:

- "Humorea, aspirina baino hobea", *Plazaola* 1981, 6.
- "Peusteneko mahaie", *Plazaola* 1982, 3.
- "Ateraldiak", *Plazaola* 1990. (Astaitz 90-1)
- "Ateraldiak, iñorekin fiatzerik ez", *Plazaola* 1991. (Astaitz 91)
- "Pesta bezperako ezkillek", *Plazaola* 1992.
- "Martin Kordaun: ehiztari, arrantzale eta bidegile txukun", *Plazaola* 1993. (Astaitz 93-1)
- "Ihes egindako judioak Leitzen", *Plazaola* 1994, 25-31. (Astaitz 94-3)
- "Pestara zetorrela itto", *Plazaola* 1996, 36-37. (Astaitz 96-3)
- "Joxerramon Alparo begiak estalita Santakutzko ermitara", *Plazaola* 1997, 12-13. (Astaitz 97-1)

Astaitzagako Mikela:

- "Piperropilak", *Plazaola* 1983, 17.orr.
- "Amore belarra", *Plazaola* 1990.
- "Leitzeko mintzoan", 1996-XI-16.

Bixente, "Leitzako gorabeherak", *Plazaola* 1985.

"Leitzako arbolaz kontu batzuk", *Plazaola* 1994, 40-44. (Arbolak 94)

Sasiziztularie, "Tolatxenetarren musika zaletasuna: (Kantari, organista, atabalari, ziztulari)", *Plazaola* 1990.

" , "Angel Alduntzin: bakarra zen; bera bezelakoa", *Plazaola* 1991.

Xixifo, "Esteban Labayen eta Martin Jauregui, *Aresoko ingurutxoa azkeneko aldiz jo zutenak*", *Plazaola* 1987.

Zikilintres, ""Diario Leitze"-tik hartuteko berrik", *Plazaola* 1983, 22-23.

**3. Beste:**

Perurena, P.; 1996, *Leitzako errege erreginak*, BBK.


---

[1] Izenburu horrekin izendatuko ditugu Mikela Labaienek guri eskuratutako bere lumako testu argitaragabeak. Lehehengoa 1996koa bada ere azkenekoak 1998an eskuratu dizkigu.

ITURGINTZA

# GAZTELU, S. C. L.

- ITURGINTZA LANAK
- KALEFAZIOA ETA GASA

Elgoien, 32
Tel. 948 51 00 86
Fax 948 61 08 56

31880 LEITZA (Nafarroa)

# LEITZARRA TABERNA

IREKITA GOIZEKO 7'30 ETATIK
Ongi ibili kanpotarrak eta ongi pasa bertakoak

Tel. 948 51 03 52 • LEITZA

TXAPA - PINTURA

# GURIA

KARROZERIAK

P. KALDERON

**TXAPA** Neurgailu elektronikoa ordenadorez, diagnosiak bankaden neurria.

**PINTURA** Labe kabina. Denetariko pinturak (ekolojikoak, uretara etab.).

**AUTOGARBIKETA** Garbitzeko ur beroko makina, aspiragailua. Irekita egun guztiak.

**BERRELDAKETAK** Denetariko akzesorioak eta berreldaketak (llantak, pilotoak, kateak, etab.)

Landa Poligonoa – Tel. 948 51 02 55 – LEITZA

# Elduaien

Martín José Iraola Etorbidea, 8 - 3º izda. • Teléf. / Fax. 943 67 00 52 • Tolosa

Kondeko Aldapa, 30 • Teléf. / Fax. 943 67 47 33 • Tolosa

Pablo Mutiozabal, 2 - 1.ª planta • Teléf. / Fax. 943 37 27 81 • Lasarte

Nafarro Etorbidea, 12 • Teléf. / Fax. 943 65 01 77 • Tolosa

Villa Itxas-Lore
Avda. Infanta Cristina, 15 (Ondarreta) • Teléf. / Fax. 943 31 07 53 • S. Sebastián

Elbarrena Auzoa, 20 • Teléf. / Fax. 948 51 06 35 • Leiza (Navarra)



Hizkuntz Eskola
Academia de Idiomas
**Elduaien**
School of Languages

## With compliments and many thanks

- Elduaien hizkuntz eskolak ingeles ikastaroak eskeintzen dizkizue oso kualifikatuak eta esperientzi duen irakasleekin.
- 25 urtetako irakaskuntza ondoren, hizkuntz bat ere labur batean ikastea proposatzen dizuegu, era atsegin eta arin batetan, ikaslearengan gogo eta interes handi bat eraginaz.
- Ikasleak beren ezagueraren arabera maila desberdinetan banatuak izaten dira.
- Azterketa ofizialak gainditzeko prestatzen dugu, adibidez:
  - Hizkuntza eskola ofiziala - First certificate, pet, advanced eta proficiency -
  - Trinity collegeko examinak.
  - Britaniar, alemaniar merkatal kamarak, etab.
  - Amerikar unibertsitateak, Toefl.
- Entrepresetarako klase bereziak.
- Haurrentzat klase bereziak (6 urtetatik aurrera).
- Elduaien hizkuntz eskola zuen eskuetan geratzen da edozein kontsultarako.

# LEITZA GARAJEA
# NEKAZARI TAILERRA

*la denok kategoriko pestak pasatzen ditugun*

Amazabal, 29 - Telf. 948 51 04 66 - LEITZA
Elizaren atzealdean - Telf. 943 68 35 42 - BERASTEGI

<u>KOMPONKETAK:</u>
*TEILATUAK,*
*SOLAIRUAK,*
*ATEAK, ...*
*LIJATU, BARNIZATU*
*ARGIZARI NATURALA*

# Zurezko Lanak

Amazabal, 14
**Leitza** (Nafarroa)
Tel. 948 51 05 03

**OIALDE TABERNA**

• BAZKARIAK, BAZKALAURREKOAK ETA OTARTEKOAK
• KAFEAK, ARDOAK ETA LIKOREAK

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 00 77 LEITZA

**"GAZTETXO"**

Goxotegi eta jolas lekua

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**IMELDA LARRAZ**

Estankoa, janari denda etabar.

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**PLAZA AUTOESKOLA**

ASEGUROAK ETA GESTORIE

*Pesta onak pasa ditzazuela*

Huarte Gotzaia, 8 - LEITZA
Tel. 948 51 03 38

**LEITZELARREA, S. L.**

Herrería, carpintería metálica
Elbarren, n.º 58 Tel. 948 51 05 98
31880 LEITZA (Navarra)

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**GARZIARENA ARRANDEGIA**

Eguneko arraiak

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elbarren, 72 • Tel. 948 51 05 90 • **LEITZA**

**BIKOITZ TABERNA**

PINTXOAK • OTARTEKOAK
PASTELAK • TARTAK
ENKARGUAK ERE HARTZEN DITUGU

Elbarren, 16 • Tel. 948 51 00 72 – **LEITZA**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**EROSLE**

SUPERMERKATUA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 00 07 - 948 61 06 57 • LEITZA

**LEIZA ANAIAK ERAIKUNTZAK**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Patxi Arrazola, 14
Tel. 948 61 09 27 - 948 61 09 34
Mugikorra 608 23 19 61

**MANDRILADORA LEIZA, S. COOP. LTDA.**

Eluseder Pol. Ind. – Tels. 948 51 06 00 - 948 51 06 01
Fax 948 51 06 02 – **ARESO**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

## TXOKO TABERNA

- Pintxoak
- Otartekoak
- Kaxuelak

Giro alaia

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 02 27 • LEITZA

CLIK

**FOTO ULAZIA**

Sta. Cruz, 43
Urbanización Zizur
Tel. 948 18 33 01

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

ADUR

ADUR TABERNA

- Otartekoak ogi beroarekin
- Kaxuelak
- Era askotako pintxoak:
  - Olagarroa
  - Grabak
  - Ziztorra sagardotan...

Elbarren, 16 - LEITZA
Tel. 948 61 08 64

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

## LOCAL SOCIAL MENDIGORRIA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Patxi Arrazola LEITZA

**Urepel kirolak**

EHIZA, ARRANTZA, KIROLAK
eta BIZIKLETAK (TAILERRA)

*Pesta zoriontsuak opa dizkizue*

Manuel Lasarte, 5 LEITZA
Tel. 948 51 06 31

**MAIMUR**

Elbarren, 15
Tel. 948 51 01 46
Fax 948 51 01 46
**LEITZA**

**PRENTSA • TESTU LIBURUAK • OPARIAK**
**PLASTIFIKATZEAK • ENKUADERNATZEAK**
**INPRENTA LANAK • FOTOKOPIAK**

*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu*

## GASOLINERA DE LEIZA

**VDA. DE RAFAEL MUGICA**

Teléfono 948 51 00 57

## LANDA TABERNA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

LEITZA

## RODRIGUEZ ETA ERASO LANTEGIA

RENAULT zerbitzua

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 02 59 Elgoien kalea, 15

## SAGASTIBELTZA ETA ARTOLA ERAIKUNTZAK

Era guzitako igeltsero lanak
Elbarren 86, 2.° ezker
Tels. 948 51 02 65 - 948 61 07 24 LEITZA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**BIOK JANTZIAK**

Gizonezko, Emakume eta Umeentzako jantziak

Elbarren, 32 • **LEITZA**
Tels. 948 51 05 58 - 51 04 77

**ARIZTIMUÑO ANAIAK ERAIKUNTZAK**

Lan orokorrak eta berrikuntzak

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Telf-ak. 948 51 02 02 y 948 51 03 74
LEITZA

**IZOZTUEN ETXEA**
**CASA DE CONGELADOS**
**MARIA ETA KATI ZABALETA**

Especialidad en croquetas, pimientos rellenos y mejillones. Precocinados, mariscos y verduras.

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elbarrén, 80 • Tel. 948 61 08 85 • 31880 **LEITZA**

**JOVIZU S. L.**
EMBALAJES

*Pesta onak opa dizkizue*

Leitzelarreko errepidea, 1. Km.
Tel. 948 51 00 53 LEITZA

**J. M. HERNANDORENA HUARTE**

BURDINDEGIA - GARBIGARRIAK
OPARIDENDA - GARRAIOAK

*Pesta onak opa dizkizue*

Tel. 948 51 00 55

**JOSE IGNACIO ARZALLUS**

Harategia - Urdaitegia
Etxeko Txistorra

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 03 77 LEITZA
Tel. 948 68 30 42 BERASTEGI

**ORAIN ELKARTEA**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
*herritar eta bisitari guziei*

LEITZA

*Eguzki Ileapaindegia*

Asun eta Lidia

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elbarren, 34 - 1. A
Tel. 948 61 06 49 LEITZA (Nafarroa)

AISLAN, s.l.

AISLAMIENTO CON PROTECCION E INYECCION DE POLIURETANO

***AISLAN - LEITZA, s.l.***

Telf. 948 51 06 27 - Móvil (989) 800 371
Manuel Lasarte, 2 - 4.° Izda. - 31880 LEITZA (Navarra)

**EXCAVACIONES Y TRANSPORTES VILLABONA HNOS. S.L.**

**Telfs. 948 51 03 04 - 948 61 09 71**
**Móvil 629 21 90 68 - 629 21 90 69**
31880 LEITZA




*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elgoyen, 6
Tel. 948 51 03 75
LEITZA

# TROK

- ZAPATA KONPONKETA
- LARRUGINTZA

*Ongi pasatu, asko dantzatu eta zapatak gastatu*

San Jose plaza 5 LEITZA

# TALLERES LAZCANO

Venta y reparación de todo tipo de automóviles, maquinaria agrícola, bicicletas y motos.

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Gorriztarán, 41 • Tel. 948 51 04 04
LEITZA

# JUBILATUEN TABERNA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 61 09 35

Vanpac

# VANPAC, S. A.

(Vasco Navarra de Papel y Cartón)
PAPER ETA KARTOI BERRESKURAPENA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tolosako errepidea, 2 Km-an
Tel. 948 51 01 61 LEITZA

TORREA TABERNA LEITZA

# TORREA ETXEA

Tfnoa.: 948 61 09 09

GOSARI, BAZKARI,
ETA AFARI, EDERRAK

EUSKAL MARTXA
ETA BORROKA
ERREPRESALIATUAK
AHAZTU GABE

GIMNASIO



GIMNASILEKU

# OSANE

• Sauna • Gimnasia mantenimiento
• Gimnasia correctiva • Aparatos musculación • Recuperaciones

**Mens sana in corpore sano**

Elgoyen, 4 - Tel. 948 51 00 70 - LEITZA

IREBER

MANTENIMENDU PREBENTIBOA

INDUSTRI MAKINERIAREN
MONTATZE ETA KONPONKETA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elgoien, 16 - 2.° B • 31880 **LEITZA**
Tel. 948 510544 - 948 510491 - 948 610755

**ZABALETA OKINDEGIA**

**IZASKYN OKINDEGI – GOZOTEGIA**

*San Tiburtzio pestak ongi igaro*

Tel. 948 51 04 68 • LEITZA

**LOREA**

Ileapaindegia
eta Solarium-a

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel.: 948 61 09 07 - **LEITZA**

**JOSE MARIA ETXEBERRIA**

GIZONEZKOENTZAKO ILEAPAINDEGIA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 02 82 • LEITZA

**KORNIETA ELKARTEAK**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

LEITZA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

*Sucesiones de José GOMEZ, s.l.*

OIHALAK - TEJIDOS

C/. Elgoien, 30 • Tel. 948 51 01 30 • 31880 **LEITZA**



**URTO KARROZERIA**

TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK

**Jesús Azurmendi Jauregi**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Kamineros etxea BERASTEGI

Telf-ak. 943 68 32 43 - 948 61 06 64

**MAPFRE**

MUTUALIDAD DE SEGUROS
Una organización a su servicio

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 04 99 LEITZA

**MERTZERIA DENONTZAT**

Jostun tresnak, galtzerdiak eta azpiko arropa

*Pesta onak pasa ditzazuela*

Tel. 948 51 05 61 • LEITZA

**OHIANA JANARIDENDA**

*Pesta goxo batzuk opa dizkizuegu*

Tel. 948 51 04 28 LEITZA

**ASTIZ ZURGINDEGIA**

Sukaldeko eta bainuko altzariak

*Pesta onak opa dizkizue*

Tel. 948 61 06 06 LEITZA

**HARATEGIA-URDAITEGIA**

**URKIOLA**

Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 04 67 – LEITZA

**TALLERES DENAUTO, S. L.**

REPARACION CHAPA - PINTURA - MECANICA - ELECTRICIDAD

SERVICIO GRUA

Polígono Industrial Eluseder • Teléfono y Fax 948 51 06 10
Teléfono Móvil: 608 77 75 59 (Permanente)
31876 **ARESO** (Navarra)

**CARLOS SAGASTIBELTZA VILLANUEVA**

ARKITEKTU TEKNIKOA

Proiektuak • Aurrekontuak
Berrikuntzak • Obren kontrola
Lur neurketak • etc.

TELEFONOAK
Bulegoa: 948 61 06 77
Mugikorra: 608 77 68 99

BASA KABI
hotel-restaurante

*Gustua baduzu, hementxe gaituzu*

Alto de Leitza • 31877 **LEITZA** (Navarra)
Tel. 948 51 01 25 • Fax 948 61 09 65

**Cocina selecta - Comidas de empresa**
**Bodas y banquetes - Comuniones y bautizos**
**Amplios comedores - Salones**
**Amplio parking - Piscina**

**"GARBI"**

Garbigaidenda
eta Usaidenda

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 01 73

**LIZARRAGA**

HARATEGIA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 02 83

**ARAKINDEGIA**

JATETXEA

Tel. 948 51 00 52

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**ASTIZ LIBURUDENDA**

**PRENTSA**
**TESTU LIBURUAK**
**OPARIAK**
**INPRENTA LANAK**
**ESKOLAKO GAIAK**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elbarren Kalea Tel./Faxa 948 510 262

**GURATZ-MENDI**

K. K. J. ELKARTEA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elgoien, 1 LEITZA

**GAZTAÑAGA TABERNA**

Otartekoak, pintxo beroak, kaxuelak

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 61 07 08

CONSTRUCCIONES
**ANIBAL Y MAXI**

*Les desea felices fiestas*

C/. Amazábal, 17 - 3.° B
Tfno.: 948 51 05 16
**LEITZA** (NAVARRA)

**PERURENA HARATEGIA**

Hemengo zekorretan espezialitatea
Urdaitegia

Tel. 948 51 01 64

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**HERBODIETETICA**
**BELARRA**

Janari denda
Elbarren, 35 • Tel. 948 51 01 92
LEITZA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue, zorionak*

**Pinturas**
**MELO**

FACHADAS, HUECOS DE ESCALERA,
PATIOS, INTERIORES, ETC...

Tel. 948 51 05 35 - LEIZA
Tel. 943 59 44 52 - ANDOAIN

ARDOTEGIA

**LENiTZ**

ARDO ETA LIKORETAKO BILTOKIA
INSALUS, SAN MIGUEL GARAGARDOA
ETA COCA-COLAREN BANATZAILEA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 03 33 LEITZA

---

**BANCO DE VASCONIA**

*Leitzar eta bisitari guztiak pesta goxo batzuk pasa ditzazuela*

Tel. 948 51 01 38 LEITZA

---

**Peluquería Edurne**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elbarrén, 35 - Tel. 630 91 67 58
31880 LEITZA (Navarra)

---

**TXAPA PINTURA LEITZA**
**KARROZERIA**

Txapa konponketa, kabinan egindako pintaketa eta labean egindako lehorketa, kolpe haundien konponketa (bankada).

Leitze-larreko errepidean LEITZA
Tels. 948 51 04 60 - 948 51 05 58 (Etxekoa)

---

**ETXE-TRESNAK**
**ELEKTROGAILUAK**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 02 08 - 51 01 81
LEITZA

---



**MUSUNZAR OSTATUA**

- JATETXEA; - GOSARIA;
- OGITARTEKOAK;
- LOGELAK

Elbarren Kalea, 14
Tel. 948 51 06 07
948 51 04 75
**LEITZA-Nafarroa**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

---

**SAGASTI**

TABERNA ETA JATETXEA
Menuak 1.800 pezetatik aurrera
Gosariak, kaxuelak, ogitartekoak

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 61 06 37 LEITZA

---



*Lizarain Ileapaindegia*

MAKILLAJE • DEPILAZIO
MANIKURA • SOLARIUM

Elbarren kalea, 16 - 1.º - Tel. 948 610 852 - LEITZA

---

**ANA ARRANDEGIA**

Eguneko arraiak eta izoztuak

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Urrutizkina: 948 61 06 81

**PAGOZELAY GOIZABAL, S.L.**

**CONSTRUCCIONES - OBRAS PUBLICAS**

Patxi Arrazola, 41 - 1.° izqda. - Tel. 948 51 03 46

31880 **LEIZA** (Navarra)

**Ileapaindegia Arantxa**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Obispo Huarte, 8 - Tfno. 948 61 09 31

**31880 LEITZA (Navarra)**

**AZPIROZ ETXEA JANTZI DENDA**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 02 46 LEITZA

**GREGORIO SAGASTIBELZA**

Constructor y Albañilería en general

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 00 59 LEIZA

**Distribuciones ARRARAS S. L.**

EDARI BANATZAILEA

Viña Alcorta, Keler, Kas, Patxaran La Navarra

Polig. Ind. Eluseder - ARESO (Nafarroa)

Tel. Oficina 948 61 08 88 - Almacén 948 51 05 99

Hizkuntza hazia
mintzoaren lore
zazpi itxura eta
hamaika kolore.

Bizi nahian gabiltza
milaka landare
gure baratzakoa
al zara zu ere?

**J. Sarasua**

**LEITZAKO EUSKALTEGIA**

Tel. 948 610 776

ika

OKINDEGIA - GOZOTEGIA

**EGUZKITZA**

PANADERIA - PASTELERIA

B.° Erreka, 3 bajo - Teléf. 948 51 06 14

LEITZA

GRUPO GENERALI

VITALICIO SEGUROS

***M.ª JESUS BARAIBAR ASTIBIA***

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Obispo Huarte, 8 bajos - Telf. 948 61 09 19

31880 LEITZA (Navarra)

SAGARDOTEGIA - SIDRERIA

**ERREKA**

ERRETEGIA



B.° Erreka - Tel. 948 51 06 25 - **LEITZA** (Navarra)

(Estamos en la salida de la autovía dirección Leitza)



# MARGARI

Teléf. Móvil 608 87 30 16
Teléf. Domicilio 948 61 07 01

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**Taxia 24 Orduko Zerbitzua**
**Servicio de Taxi 24 horas**

**31880 LEITZA (Navarra)**

---



ARTZAI - GAZTA ®

**Gorritz**

*Pesta alaiak pasa ditzagun errepresaliatuak gogoan ditugula*

XABIER SESTORAIN • GORRITZ BASERRIA • LEITZA 948 51 05 70

---



IRUSO

TABERNA
JATETXEA

*Txeju Gernua eta Garbiñe Aleman*

Leitzalarreko Bidean - Tel. 948 39 70 35 - 31880 LEITZA

---

EXCAVACIONES Y CONSTRUCCIONES

# Gorritz S.L.

**ERAIKUNTZAK**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

GORRITZ BASERRIA. 31880 LEITZA.
TLF: **610 212690**, ETXEKOA **948 510570**

---



# XUHAT

KONTZERTUAK
JAIAK
EZKONTZAK...
HARREMANETARAKO:
948 510008 (Nerea)
943 675820 (Itsaso)

---

# NEKANE TABERNA

Goiz goizetik irekia
Gosariak, pintxoak, bokatak...

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 03 28 LEITZA

Jose Fermin Gomez Zubiri


ULI-ZAR
ELKARTEA, S.L.

ITURGINTZA, GASA, GASOLEOA, TXIMENEAK

Bide onde etxea, ARESO • San Miguel, 2 - LEITZA
Tel. 948-510153 - 610682 • Mugikorra: 689-701557
Larrialdiak: 948-271020 - 1976

GOIZARGI
SUPERMERKATUA

BEREZITASUNA:
URDAITEGIAN ETA FRUTERIAN

*Pesta onak pasa ditzazuela*

Patxi Arrazola, 9 Tel. 948 51 05 63

ZURLAN
ZURGINDEGIA
Goiko Errota • Tel. 948 5104 02 • LEITZA

*Pesta onak opa dizkizue*

TXARAGORRI
ITURGINTZA
FONTANERIA

Elbarren, 56
(Martikonea)
Tel. 948 610 749
Leitza. Mobile:
608 698 329